

JABEA	NAN	SALAKETA -ORRIA	ARAU -HAUSTEAREN EGUNA	DEKRE- TUAREN DATA	ISUNA
VARELA LASA, JUAN JOSÉ	32660675	7/00315/05	22-01-05	20-07-05	300
MOUNTASSIR, GMIH	X2696916M	598X0400352	17-10-04	20-07-05	300
RAMOS REDONDO, ARKAITZ	72721654	7/00217/05	16-01-05	20-07-05	300
BARRIO PÉREZ, ASIER	72745248	7/03628/04	13-11-04	20-07-05	300

Vitoria-Gasteizen, 2005eko irailaren 12an.– Alkate Lehendakaria, ALFONSO ALONSO ARANEGUI.

VITORIA-GASTEIZ

UDALEKO EZKUNTZA SAILA

Hezkuntza, Kultura eta Kirol Arloa

6.183

Iragarkia

Gasteizko Haur Hezkuntzako Udal Eskolen Sarearen aAntolakuntza eta Funtzionamendu Araudiaren behin betiko onespena.

Gasteizko Haur Hezkuntzako Udal Eskolen Sarearen Antolakuntza eta Funtzionamendu Araudiari hasierako onespena ematea erabaki zuen udalbatzak 2005eko apirilaren 22an egindako bilkuran.

Orobat erabaki zen hogeita hamar egunez testua jendaurrean jarrita edukitzea, erreklamazio eta iradokizunak aurkezterik izan zedin. Epe horretan ez zen alegaziorik aurkeztu, araudiaren inguruan.

Horrenbestez, behin betiko onespena eman zion udalbatzak Gasteizko Haur Hezkuntzako Udal Eskolen Sarearen Antolakuntza eta Funtzionamendu Araudiari 2005eko uztailearen 29an egindako bilkuran.

Halaber, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 65.2. eta 70. artikuluen ildotik, estatuko eta euskal autonomia erkidegoko organo eskudunei igorri zitzaizkien bai hartutako erabakia, bai araudiaren testua, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezterik izan zezaten. Epea igaro delarik, ez da erreklamaziorik aurkeztu.

Vitoria-Gasteizen, 2005eko irailaren 8an.– Alkatea, ALFONSO ALONSO ARANEGUI.

HAUR HEZKUNTZAKO UDAL ESKOLEN SAREAREN ANTOLAKUNTZA ETA FUNTZIONAMENDU ARAUDIA

ATARIKO TITULUA

1. ARTIKULUA:

Araudi honi jarraiki gobernaturiko dira Vitoria-Gasteizko Haur Hezkuntzako Udal Eskolak.

2. ARTIKULUA:

Hauxe izango da Vitoria-Gasteizko Udalaren Haur Hezkuntzako Udal Eskolen izen ofiziala: "Haur Hezkuntzako Udal Eskolak – Escuelas Municipales de Educación Infantil".

3. ARTIKULUA:

Udaleko Hezkuntza Sailari atxikita egongo dira Vitoria-Gasteizko Haur Hezkuntzako Udal Eskolak, beren gobernu eta administrazioarako.

4. ARTIKULUA:

Honako hauek izango dira Haur Hezkuntzako Udal Eskolen Sarearen baitako: Vitoria-Gasteizko Udalak, izen eta izaera horrekin, Udaleko Hezkuntza Sailari atxikitzen dizkion ikastegiekin oro.

5. ARTIKULUA:

Hiru urtera arteko haurrei zuzendutako hezkuntza zerbitzua eskaintzen duten ikastegiak dira Haur Hezkuntzako Udal Eskolak. Harik eta zerbitzuaz baliatzeko aukera den-denek ez duten bitartean, sartzeko prozedura bat finkatuko da, eta hauek hartuko dira aintzat bertan: famili unitatearen urteko errentak, haurren adina, familiaren egoera, lan egoera eta lehentasunezko eskolaratze premiak. Alkateari edo ordezkari izendatzen duen zinegotziari dagokio prozedura hori onestea.

TITULAR	D.N.I.	BOLETÍN DENUNCIA	FECHA INFRACCIÓN	FECHA DECRETO	SANCIÓN EUROS
VARELA LASA, JUAN JOSÉ	32660675	7/00315/05	22-01-05	20-07-05	300
MOUNTASSIR, GMIH	X2696916M	598X0400352	17-10-04	20-07-05	300
RAMOS REDONDO, ARKAITZ	72721654	7/00217/05	16-01-05	20-07-05	300
BARRIO PÉREZ, ASIER	72745248	7/03628/04	13-11-04	20-07-05	300

En Vitoria-Gasteiz, a 12 de septiembre de 2005.– El Alcalde-Presidente, ALFONSO ALONSO ARANEGUI.

VITORIA-GASTEIZ

DEPARTAMENTO MUNICIPAL DE EDUCACIÓN

Área de Educación, Cultura y Deporte

6.183

Anuncio

Aprobación definitiva del Reglamento de Organización y Funcionamiento de la Red de Escuelas Municipales de Educación Infantil de Vitoria-Gasteiz.

En Sesión Ordinaria celebrada por el Ayuntamiento Pleno el día 22 de abril de 2005, se acordó aprobar inicialmente el Reglamento de Organización y Funcionamiento de la Red de Escuelas Municipales de Educación Infantil de Vitoria-Gasteiz.

Igualmente se acordó someter el texto a información pública por un plazo de treinta días para la presentación de reclamaciones y sugerencias. En dicho plazo se presentaron alegaciones a dicho Reglamento.

En Sesión Ordinaria celebrada por el Ayuntamiento Pleno el día 29 de julio de 2005 se aprobó definitivamente al Reglamento de Organización y Funcionamiento de la Red de Escuelas Municipales de Educación Infantil de Vitoria-Gasteiz.

Asimismo, de conformidad con el artículo 70 y 65.2 de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local, se remitió el acuerdo adoptado por el Pleno y el texto del mencionado Reglamento a los órganos competentes de la Administración del Estado y de la Comunidad Autónoma del País Vasco para la presentación de reclamaciones y sugerencias. Transcurrido dicho plazo, no se ha presentado reclamación alguna.

Vitoria-Gasteiz, a 8 de setiembre de 2005.– El Alcalde, ALFONSO ALONSO ARANEGUI.

REGLAMENTO DE ORGANIZACIÓN Y FUNCIONAMIENTO DE LA RED DE ESCUELAS MUNICIPALES DE EDUCACIÓN INFANTIL

TÍTULO PRELIMINAR

ARTICULO 1º

Las Escuelas Municipales de Educación Infantil de Vitoria-Gasteiz se regirán por el presente Reglamento.

ARTICULO 2º

La denominación oficial de Las Escuelas Municipales de Educación Infantil del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz será la de "Haur Hezkuntzako Udal Eskolak – Escuelas Municipales de Educación Infantil".

ARTICULO 3º:

Las Escuelas Municipales de Educación Infantil de Vitoria-Gasteiz están adscritas para su gobierno y administración al Departamento Municipal de Educación.

ARTICULO 4º:

Integran la Red de Escuelas Municipales de Educación Infantil todos aquellos centros con esta denominación y carácter que el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz adscriba al Departamento Municipal de Educación.

ARTICULO 5º:

Las Escuelas Municipales de Educación Infantil son centros que prestan un servicio educativo dirigido a niños y niñas de cero a tres años. En tanto no se garantice la universalidad del acceso al servicio se establecerá un procedimiento de acceso que tendrá en consideración las rentas anuales de la unidad familiar, la edad de los niños y las niñas, la situación familiar y laboral, así como las necesidades prioritarias de escolarización. Corresponde al Alcalde o Concejalel en quien delegue la aprobación de dicho procedimiento.

6. ARTIKULUA:

Haur eskolen sare propioa izango du Vitoria-Gasteizko Udalak, harik eta haur hezkuntzari buruzko lege-esparrua aldatzen ez den bitartean.

LEHEN TITULUA: Haur Hezkuntzako Udal Eskoletako Hezkuntza-Proiektuaren Printzipioak.

7. ARTIKULUA:

Honako hauek izango dira Haur Hezkuntzako Udal Eskolen Sarearen Hezkuntza-Proiektuaren oinarriak:

a) Oinarri hauxe hartzen du abiapuntutzat Haur Hezkuntzako Udal Eskolen Sareak: familiarena da heziketaren funtsezko ardura. Eskolak lagundu egiten du zeregin horretan, famili esparruko heziketaren jarraibideak eta formak errespetatuz.

Eskolak –antolakuntza egituratu, gaitu eta gurarizkoa den aldetik– modu aktiboan parte hartzen du familiei orientabidea eta pres-takuntza eskaintzeko zereginetan, haurren heziketari dagozkionetan.

Eskolak –haurrek famili esparrutik kanpo egiten dituzten lehenengo sozializazio urratsen ingurune pribilegiatua den aldetik– egituratu egiten ditu familiek heziketa-jarduerara bildu eta hartan parte hartzeko ekintzak.

b) Haurrari bere famili esparrutik kanpoko beste pertsona batzuekin –haur nahiz nagusi– esperientziak partekatzeko aukera ematen dion hezkuntza-zerbitzua osatzen dute Haur Hezkuntzako Udal Eskolek; hain zuzen ere, haurrak jaiotzen denetik heziketa jasotzeko duen eskubideari bide ematen zaio hartara.

c) Bi funtzio ditu oinarritzat Haur Hezkuntzako Udal Eskolen Sareko Hezkuntza-Proiektuak, zein baitira entitate propioa duen zeregin hezitzailea “per se” eta zeregin ludikoa, haurren funtsezko eskubideak diren aldetik. Hasierako jarrera horren mende egongo dira haurren heziketaren baitako gainerako funtzioak.

d) Haurra pertsonatzat –berariazko behar fisiko, afektibo eta emozionalak dituen pertsonatzat– hartzen duen ikusmolde integrala dute abiapuntu funtzio hezitzaileak berak nahiz funtzio ludikoak. Aldi berean, nortasunaren bilakaera harmonikoa bilatzen dute, ikuspegi afektibo, intelektual, sozial eta kulturaletik, enfoke globalizatzaileko metodologi printzipioak oinarri dituztelarik, jarduera-printzipiotzat jolasa harturik eta segurtasun eta afektibitate giroan.

e) Elebiduntzat definitzen da Haur Hezkuntzako Udal Eskolen Sarea, eta modu erabakigarrian egingo du EAEko bi hizkuntza ofizialek hirian bizi duten desberdintasun egoera soziala gainditzearen alde.

f) Aukera berdintasuna sustatzearen printzipioa du gidari Haur Hezkuntzako Udal Eskolen Sareak; hain zuzen ere, ekintza positiborako neurrien bitartez egingo du hori, arraza, sexua hizkuntza, erlijioa, gaitasun ekonomikoa, maila sozial edo kulturala nahiz gizabanakoen arteko desberdintasunak direla eta bereizkeriarik egin gabe.

g) Modu aktiboan parte hartzen du Haur Hezkuntzako Udal Eskolen Sareak hezkuntza-premia bereziak dituzten haurrak integrazteko politikan, horiek eskolaratzeari lehentasuna ematen dieten neurrien bitartez nahiz berariazko programazioak taxutuz.

8. ARTIKULUA:

Haurren nortasunaren bilakaera harmonikoa dute helburu Haur Hezkuntzako Udal Eskolek, dela ikuspegi afektibotik, intektualetik, sozialetik nahiz kulturaletik.

Haurrengan gaitasun hauek garatzen lagunduko dute horretarako:

Beren gorputza eta jarduteko aukerak ezagutzekoa, adierazpen eta komunikazio modu desberdinen bitartez besteekin harremanak izatekoa, ingurunea –familia, natura, gizartea– behatu eta arakatzekoa, ohiko jardueretan gero eta autonomia handiagoa lortzekoa eta indarrean dauden hizkuntz ereduaren ildotik EAEko hizkuntza ofizialak ikasten hastekoa.

BIGARREN TITULUA: Haur Hezkuntzako Udal Eskolen Antolakuntza eta Funtzionamendua.

9. ARTIKULUA:

Haur Eskolen Zerbitzu bat izango du Udaleko Hezkuntza Sailak, zeinek Haur Hezkuntzako Udal Eskola guztiak eta talde tekniko bat hartuko baititu bere baitan. Hauxe izango da horren zeregina: Haur Hezkuntzako Udal Eskolen Sarea eta bertako ikastegietako bakoitza planifikatu, aholkularitza, prestakuntza eta orientabidea eman eta horien antolakuntza eta funtzionamendua koordinatu eta ikuskatzea.

ARTICULO 6º:

El Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, mantendrá su red propia de Escuelas Infantiles siempre y cuando no se altere el marco legislativo sobre la educación infantil.

TÍTULO PRIMERO: De los Principios del Proyecto Educativo de las Escuelas Municipales de Educación Infantil.

ARTICULO 7º:

Los fundamentos del Proyecto Educativo de la Red de Escuelas Municipales de Educación Infantiles son los siguientes:

a) La Red de Escuelas Municipales de Educación Infantil parte de la base de que la responsabilidad fundamental de la educación corresponde a la familia. La escuela colabora en dicha tarea desde una perspectiva de respeto a las pautas y formas de educación en el ámbito familiar.

La escuela, en tanto organización estructurada, capacitada e intencional, participa activamente en la labor de orientación y formación de las familias en todo lo que atañe a la educación de los niños y de las niñas.

La escuela, como entorno privilegiado para los primeros pasos de socialización de los niños y de las niñas fuera del marco familiar, estructura acciones de encuentro y participación de las familias en la práctica educativa.

b) Las Escuelas Municipales de Educación Infantil son un servicio educativo en el que se da la oportunidad a la niña o el niño de compartir experiencias con otras personas ya sean iguales o adultas, ajenas a su medio familiar, como desarrollo de derecho que les asiste a ser educados desde su nacimiento.

c) El Proyecto Educativo de la Red de Escuelas Municipales de Educación Infantil se sustenta en la función educativa con entidad propia “per se” y en la función lúdica como derechos fundamentales de la infancia. El resto de funciones propias de la educación infantil serán deudoras de este posicionamiento inicial.

d) La función propiamente educativa y la función lúdica parten de la concepción integral del niño y de la niña como persona, con unas necesidades físicas, afectivas y emocionales específicas. Al tiempo pretenden el desarrollo armónico de la personalidad, desde el punto de vista afectivo, intelectual, social y cultural, basándose en principios metodológicos con un enfoque globalizador, con el juego como principio de actividad y en un ambiente de seguridad y afectividad.

e) La Red de Escuelas Municipales de Educación Infantil se define como bilingüe con una decidida apuesta por superar la situación social de desigualdad de las dos lenguas oficiales de la CAPV en la ciudad.

f) La Red de Escuelas Municipales de Educación Infantil se rige por el principio de promoción de la igualdad de oportunidades a través de medidas de acción positiva y mediante la no discriminación por razones de raza, sexo, lengua, religión, capacidad económica, nivel social o cultural, o diferencias individuales.

g) La Red de Escuelas Municipales de Educación Infantil participa activamente en la política de integración de los niños y niñas con necesidades educativas especiales a través de medidas que priorizan su escolarización y de la adopción de programaciones específicas.

ARTICULO 8º:

Las Escuelas Municipales de Educación Infantil tienen como objetivo el desarrollo armónico de la personalidad de la niña y el niño, desde el punto de vista afectivo, intelectual, social y cultural.

Para ello contribuirán a desarrollar en los niños y niñas las siguientes capacidades:

Conocer su propio cuerpo y sus posibilidades de acción, relacionarse con los demás a través de las distintas formas de expresión y comunicación; observar y explorar su entorno familiar, natural y social; adquirir progresivamente autonomía en sus actividades habituales; iniciar el aprendizaje de las lenguas oficiales de la CAPV, según los modelos lingüísticos vigentes.

TÍTULO SEGUNDO: De la Organización y Funcionamiento de las Escuelas Municipales de Educación Infantil.

ARTICULO 9º:

El Departamento Municipal de Educación contará con un Servicio de Escuelas Infantiles integrado por la totalidad de las Escuelas Municipales de Educación Infantil y por un Equipo Técnico cuya función será la de planificar, asesorar, formar, orientar, coordinar y supervisar la organización y el funcionamiento de la Red de Escuelas Municipales de Educación Infantil y de cada uno de sus centros.

10. ARTIKULUA:

Eskaintzen duten hezkuntza-mailak berezko dituen jarduerak bideratzeko aski baliabide material izan beharko dituzte Haur Hezkuntzako Udal Eskolek. Zentzu horretan, finkatutako legezko betekizunetara egokituko dira, instalazioei eta baldintza materialei dagokienez.

11. ARTIKULUA:

Irailetik uztaileira bitartean eskainiko dute zerbitzua Haur Hezkuntzako Udal Eskolek, bi hilabete horiek barne.

Egokitze aldi bat egin beharko dute hurrek eskoletara sartzeko, irailean hasi eta bukatu.

12. ARTIKULUA:

Funtzionamendu bereziko aldiak finkatuko dituzte Haur Hezkuntzako Udal Eskolek Eguberrietan, Aste Santuan, Pazko Astean eta uztailean; zabalik egongo dira ikastegiak aldi horietan, baina ohikoez bestelako baldintzak finkatu ahal izango dira, antolakuntzari nahiz funtzionamenduari dagozkienetan.

13. ARTIKULUA:

Hauxe izango da Haur Hezkuntzako Udal Eskolen zerbitzuaren ordutegi orokorra: goizeko 7:30etik arratsaldeko 17:30era; hau da, hamar orduko irekialdiko zerbitzua eskainiko da. Funtzionamendu bereziko aldietan 7:30etik 15:30era arteko tartera egokitu ahal izango dira ordutegiak.

Zerbitzuaren planifikazioak eta eskariaren bilakaerak hala egitea justifikatzen dutelarik, behar diren ordutegi egokitzapenak egin ahal izango dira hurren eta horien familien beharrei erantzuteko. Nolanahi ere, oro har, hurrek ezingo dute eskolan zortzi ordutik gora egon.

14. ARTIKULUA:

Hurren nahiz horien senitartekoen premiak Haur Eskolen xedeekin eta antolakuntzarekin uztartzeko aldera, hainbat ordutegi modalitate eskainiko dizkiete Haur Eskolek familiei aukeran; haurrari haur eskolan izena ematean aukeratu beharko dute horiek ordutegia, hain zuzen ere. Beti ere denbora-tarte malguak finkatuko dira ikastegian sartzeko nahiz bertatik ateratzeko.

15. ARTIKULUA:

Indarrean dauden araueri jarraiki bilduko dituzte haurrak taldeetan Haur Hezkuntzako Udal Eskolek, horien adina eta bilakaera psikosoziala aintzat hartzen dutelarik. Arauetan finkatukoaz beste modu batean bilduz gero haurrak taldeetan, eskumena duen instantziari jakinarazi beharko zaio.

16. ARTIKULUA:

Haur kopuru hauek izango dituzte Haur Hezkuntzako Udal Eskolek, gehienez, funtzionamendu unitate bakoitzeko:

- Urtebetetik beherako haurrentzako unitateak: 10.
- Urtebeteko hurren unitateak: 13 (urteko lehen seihilekoan jaioak) eta 15 (bigarren seihilekoan jaioak).

- Bi urteko haurrentzako unitateak: 20.

Hezkuntza-premia bereziak dituzten haurrak baldin badaude tartean, aukeran izango da taldeko hurren kopurua murriztea edo berriazko laguntza emateko behar diren baliabideak jartzea. Udaleko Hezkuntza Sailari dagokio balorazioa egin eta kasu bakoitzean egoki diren neurriak proposatzea.

17. ARTIKULUA:

Honako hauek izango dira, oro har, talde bakoitzeko haur kopuruak eta hezitzaile bakoitzeko haur ratioak

- Jantoki zerbitzua: hezitzaile 1 / 6 haur.
- Goizeko sartzeko ordutegia: hezitzaile 1 / 8 haur.
- Goizeko ordutegia: 2 hezitzaile / gela-taldea.
- Arratsaldeko ordutegia:
- 2 hezitzaile / 12 haur.
- 3 hezitzaile / 13-20 haur.
- 4 hezitzaile / 21-28 haur.
- 5 hezitzaile / 29-36 haur.

ARTICULO 10°:

Las Escuelas Municipales de Educación Infantil dispondrán de los recursos materiales suficientes para desarrollar las actividades propias del nivel educativo que imparten. En este sentido, se adecuarán en cuanto a instalaciones y condiciones materiales a los requisitos legales establecidos.

ARTICULO 11°:

Las Escuelas Municipales de Educación Infantil prestarán sus servicios desde el mes de setiembre hasta el mes de Julio, ambos incluidos.

La incorporación de los niños y las niñas a la escuela se realizará a través de un período de adaptación que finalizará en el mes de septiembre.

ARTICULO 12°:

Las Escuelas Municipales de Educación Infantil establecerán períodos de especial funcionamiento en Navidad, Semana Santa, Semana de Pascua y mes de Julio, en los cuales los centros permanecerán abiertos, pudiendo determinarse condiciones diferentes a las habituales, en los aspectos referidos a la organización y el funcionamiento.

ARTICULO 13°:

El horario general del servicio de las Escuelas Municipales de Educación Infantil será el comprendido entre las 7,30 de la mañana y las 17,30 de la tarde, esto es, se oferta un servicio con 10 horas de apertura. Durante los períodos de especial funcionamiento podrán adaptarse los horarios a la franja entre las 7,30 y 15,30 horas.

Siempre que la planificación del servicio y la evolución de la demanda lo justifiquen, se podrían realizar las adaptaciones horarias precisas para satisfacer las necesidades de los niños y las niñas y sus familias. No obstante y con carácter general, los niños y las niñas no podrán permanecer en el centro más de ocho horas.

ARTICULO 14°:

Con el objeto de conciliar las necesidades infantiles y familiares con los fines y organización de las Escuelas Infantiles, los centros ofrecerán diversas modalidades horarias de libre elección para las familias, a las que optarán en el momento de la inscripción del niño o niña en la escuela infantil. En todos los casos se establecerán períodos flexibles en las entradas y salidas del centro.

ARTICULO 15°:

Las Escuelas Municipales de Educación Infantil realizarán el agrupamiento de los niños y las niñas conforme a la normativa vigente y considerando la edad y el desarrollo psicosocial de éstos. En el caso de realizar agrupamientos diferentes a los normativamente establecidos, se informará a la instancia competente.

ARTICULO 16°:

Las Escuelas Municipales de Educación Infantil tendrán como máximo el siguiente número de niños y niñas por unidad de funcionamiento:

- Unidades de niños y niñas menores de un año: 10.
- Unidades de niños y niñas de un año: 13 (para nacidos/as durante el primer semestre del año) y 15 (para nacidos/as durante el segundo semestre).
- Unidades para niños y niñas de dos años: 20.

En el caso de la existencia de niños y niñas con necesidades educativas especiales podrá optarse por la reducción del número de niños y niñas por grupo o por la dotación de apoyos específicos. Corresponde al Departamento Municipal de Educación la valoración y la propuesta de las medidas oportunas en cada caso.

ARTICULO 17°:

La relación numérica de niños y niñas/grupo y la ratio niños y niñas/educador se establecen, con carácter general, del modo siguiente:

- Servicio de comedor: 1 educador/a / 6 niños/as.
- Horario de entrada de mañana: 1 educador/a / 8 niños/as.
- Horario de mañana: 2 educadores/as / grupo-aula.
- Horario de tarde:
- 2 educadores/as / 12 niños/as.
- 3 educadores/as / 13-20 niños/as.
- 4 educadores/as / 21-28 niños/as.
- 5 educadores/as / 29-36 niños/as.

Gainera, laguntza emateko langileak jartzea erabaki ahal izango da, haurren adina, ikastegiaren ezaugarriak eta hezkuntza-premia bereziak dituen haurrik dagoen aintzat hartuta.

18. ARTIKULUA:

Ondorengo tresnak baliatuz antolatuko dira Haur Hezkuntzako Udal Eskolak, beren pedagogi autonomia baliatzen dutelarik eta Udaleko Hezkuntza Sailak finkatutako lehentasunak aintzat harturik:

- a) Ikastegiko curriculum-proiektua.
- b) Ikastegiko urteko plana.
- c) Urteko oroit-idazkia.

19. ARTIKULUA:

Sarearen hezkuntza-proiektua garatzen du ikastegiko curriculum-proiektuak, heziketari dagokionean. Honako hauek jaso behar ditu, gutxienez:

- a) Haurren beharretarako egoki diren helburu eta jarduerak, heziketaren alderdi guztiak beren baitan hartzen dituztelarik, osasunarekin, higieinarekin eta elikadurarekin zerikusia dutenak barne, baita indarrean dauden hizkuntza ereduen aplikazioari dagozkionak ere.
- b) Edukien banaketa, esperientzia esparru hauen arabera: Identitatea eta Autonomia Pertsonala; Ingurune Fisiko eta Soziala Ezagutzea, eta Komunikazioa eta Irudikapena.
- c) Eskolako hezitzaileen jarraipena eta koordinazioa bermatuko dituzten irizpide pedagogiko eta didaktikoen zehaztapena.
- d) Metodologia didaktikoaren eta curriculum-materialen inguruak aukerak.
- e) Hezkuntza-premia berezien trataera.
- f) Ebaluazio-irizpideen definizioa eta zehaztapena.
- g) Haurren familiek parte hartzeko nahiz haiekin koordinatzeko bideak.

20. ARTIKULUA:

18. eta 19. artikuluetan aipatu diren tresnek beren baitan jasotzen dituzten zehaztapenen gauzaketa biltzen du ikastegiko urteko planak. Urteko oroit-idazkiaren bitartez, berriz, urteko planak bere baitan jasotako helburuak bete diren ebaluatuko da.

21. ARTIKULUA:

Araudi honetako 19. eta 20. artikuluetan aipatutako tresnak Udaleko Hezkuntza Saileko Haur Eskolen Zerbitzuko talde teknikoari igorri beharko zaizkio, hark irizpena eman dezan horien gainean.

22. ARTIKULUA:

Hezitzaile bikotearen metodologia baliatuz antolatuko da irakaskuntza-lana Haur Hezkuntzako Udal Eskoletan; horrenbestez, bi hezitzailek hartuko dituzte beren gain gela/talde bakoitzeko zereginak. Hain zuzen ere, beren unitateko heziketa-lan integralari dagozkion zeregin guzti-guztiak hartuko dituzte beren gain bi pertsona horiek, osasunaren, higieనేaren eta elikaduraren alorreko jarduerak barne.

Sartzeko eta ateratzeko orduetan, jantoki zerbitzuan nahiz arratsaldean araudi honetako 17. artikuluan finkatutako ratioak aplikatuko dira.

HIRUGARREN TITULUA: Haur Hezkuntzako Udal Eskoletako Haurrak.

23. ARTIKULUA:

Haur Hezkuntzako Udal Eskoletara joaten diren haur guztiak dute afektu, harreman, jolas eta jardute premiak asetzeko eskubidea, baita beren integritate fisiko eta morala errespetatua izatekoa ere.

24. ARTIKULUA:

Haurra eskola ingurunera lehenengo aldiz sartzeko modu programatuan egingo da, familiek zuzenean parte hartzen dutelarik. Haurrei zuzendutako ekintzak hartu beharko ditu bere baitan famili inguruneetik eskola ingurunera igartzeko programazioak, baita familiei berei zuzendutakoak ere, haurren egonkortasun emozional eta afektiboa bermatzeko, eta ordutegi malgutasuna, horien egokitze aldia hobetzeko, familiek zer aukera dituzten aintzat harturik.

Además, podrá determinarse la dotación de personal de apoyo en función de la edad de los niños y niñas, las características del centro y la existencia de niños y niñas de necesidades educativas especiales.

ARTICULO 18º:

Las Escuelas Municipales de Educación Infantil en el ejercicio de su autonomía pedagógica y, en consideración a las prioridades establecidas por el Departamento Municipal de Educación, se articularán mediante los siguientes instrumentos:

- a) El Proyecto Curricular de Centro.
- b) El Plan Anual de Centro.
- c) La Memoria Anual.

ARTICULO 19º:

El Proyecto Curricular de Centro, desarrolla, en el aspecto educativo, el Proyecto Educativo de Red. Contendrá, al menos, las siguientes determinaciones:

- a) Los objetivos y las actividades adecuadas para las necesidades de los niños y las niñas en todos los aspectos educativos, incluidos los relacionados con la salud, la higiene y la alimentación, así como con la aplicación de los modelos lingüísticos vigentes.
- b) La distribución de los contenidos según los siguientes ámbitos de experiencia: Identidad y Autonomía Personal; Conocimiento del Medio Físico y Social; y Comunicación y Representación.
- c) La determinación de los criterios pedagógicos y didácticos que aseguren la continuidad y coordinación del personal educador de la escuela.
- d) Las opciones referidas a la metodología didáctica y a los materiales curriculares.
- e) El tratamiento de las necesidades educativas especiales.
- f) La definición y concreción de los criterios de evaluación.
- g) Las vías de participación y coordinación con las familias de los niños y las niñas.

ARTICULO 20º:

El Plan Anual de Centro recoge la realización de las determinaciones que se contienen en los instrumentos a los que se hace referencia en los artículos 18 y 19. Mediante la Memoria Anual se evaluará el cumplimiento de los objetivos contenidos en el mencionado Plan Anual.

ARTICULO 21º:

Los instrumentos mencionados en los artículos 19 y 20 del presente Reglamento, serán remitidos al Equipo Técnico del Servicio de Escuelas Infantiles del Departamento Municipal de Educación, para que éste dictamine sobre los mismos.

ARTICULO 22º:

La organización del trabajo docente en las Escuelas Municipales de Educación Infantil se realizará según la metodología de pareja educativa, en virtud de la cual las funciones a desempeñar en el grupo-aula son asumidas por dos personas. Entre ambas personas asumen todas y cada una de las funciones inherentes a la atención educativa integral de su unidad, incluyendo las actividades relacionadas con la salud, la higiene y la alimentación.

Para los periodos de entradas y salidas, servicio de comedor y tarde se aplicarán las ratios establecidas en el artículo 17 del presente Reglamento.

TÍTULO TERCERO: De los Niños y las Niñas en las Escuelas Municipales de Educación Infantil.

ARTICULO 23º:

Todos los niños y las niñas asistentes a las Escuelas Municipales de Educación Infantil tienen derecho a satisfacer sus necesidades de afecto, relación, juego y acción, así como al respeto a su integridad física y moral.

ARTICULO 24º:

La incorporación por primera vez del niño y de la niña al entorno escolar se realizará de forma programada, con la participación directa de las familias. La programación del tránsito del ámbito familiar al escolar ha de contemplar acciones dirigidas a los niños y las niñas, así como a las propias familias, para garantizar la estabilidad emocional y afectiva de los primeros e incluir la flexibilización del horario para su mejor adaptación, contando siempre con las posibilidades de las familias.

Aurreko ikasturtean dagoeneko haur eskoletara joan diren haurrak ikastegian sartzeko prozesua bestelako parametroen mende egon ahal izango da, eskolara lehenengo aldiz joaten diren haurren zakoena aldean.

25. ARTIKULUA:

Legeak, oro har, ziklo horretarako finkatzen dituen adinekin hasiko eta bukatuko da haurren eskolaratzea Haur Hezkuntzako Udal Eskoletan.

LAUGAREN TITULUA: Familia eta Eskolaren arteko Harremanak, Haur Hezkuntzako Udal Eskoletan.

26. ARTIKULUA:

Komunikazio, parte hartze eta prestakuntza eredu bitartez taxutuko dira familia eta eskolaren arteko harremanak. Komunikazioa jarraia izango da, eta osagai informal bat izango du, eta beste bat sistematikoa eta egituratua. Parte hartzea, gisa berean, bide informal nahiz formalen bitartez sustatuko da, hala nola Ikastegiko Eskola Kontseiluaren eta Sareko Eskola Kontseiluaren bitartez. Prestakuntza, berriz, Guraso Eskolen bitartez.

27. ARTIKULUA:

Eskola-antolakuntzak erraztu eta sustatu egingo du familiekiko egunez eguneko komunikazio informala haurrak eskolara sartzeko eta ateratzeko uneetan, horiei eragiten dieten zirkunstantzien nahiz eskaini beharreko zaintza eta laguntza fisikoaren inguruko berri jasotze aldera, baita eskolara egokitu eta bertan egotearen ondorio diren alderdi emozional eta afektiboaren nahiz haurrak ikastegian duen jarrearari eragiten dieten famili egoeren berri ere.

28. ARTIKULUA:

Zentzu sistematikoa eta egituratua, banako elkarrizketen eta gelako bileren bitartez bideratuko da familiaren eta haur eskolaren arteko komunikazio formala.

29. ARTIKULUA:

Familiekiko komunikazioa bateratzeko eta zentzua emateko mekanismoak bilduko ditu eskola bakoitzak ikastegiaren funtzionamenduari buruzko arauzko agirietan, 27. eta 28. artikuluen ildotik.

30. ARTIKULUA:

Parte hartzeko eta eskolako jardueraren berri izateko mekanismoak sortuko dituzte Haur Hezkuntzako Udal Eskolek familientzat. Hain zuzen ere, hauek sartzeko dira atal horretan: egokitze aldia mugatu eta egituratzea; ikusizko aurkezpenak eskolako nahiz gelako bilkura orokorretan; herri kultura curriculumean txertatzearekin zerikusia duten ekitaldi ludiko eta jaietan parte hartzea; familientzako "ate ireki" jarduerak, eta eskola bakoitzeko berriazko bestelako ikustarazte eta parte hartze moduak.

Eskola bakoitzak taxutuko ditu familientzako informazio eta parte hartze bideak, arauzko agirien bitartez, eskolaren hezkuntza ildoarekin bat etorritz.

31. ARTIKULUA:

Familiei laguntza eta orientabidea eskaintzeko zeregina, gainera, izaera partehartzaileko prestakuntza jardueren bitartez -hitzaldiak, mintegiak eta beste- antolatuz, koordinatuz eta bideratuz da -modu generikoan, "Guraso Eskolak" izango da jarduera horien izena-. Era berean, bai Haur Eskolen Zerbitzuko talde teknikoak, bai eskolek bere dokumentazio egokia landu eta zabalduko dute famili inguruneari nahiz familiaren eta eskolaren arteko harremanei dagozkien hezkuntzaren alorreko hainbat konturen inguruan.

BOSGARREN TITULUA: Haur Hezkuntzako Udal Eskoletako Langileak.

32. ARTIKULUA:

Hezitzaileek eta zerbitzuetako langileek osatuko dute Haur Hezkuntzako Udal Eskoletako langileen multzoa. Vitoria-Gasteizko Udalak Hezkuntza Saileko Haur Eskolen Zerbitzuari atxikitako udal funtzionarioek osatuko dute hezitzaileen multzoa. Zerbitzuetako langileak, berriz, hauek izango dira: sukaldeko langileak eta garbiketakoak -lanpostu zerrendan adierazten den sailari atxikita egongo dira horiek.

I. KAPITULUA: HAUR HEZKUNTZAKO UDAL ESKOLETAKO HEZITZAILEAK

1. ATALA: TITULAZIO BETEBEHARRAK.

33. ARTIKULUA:

Indarrean dagoen legedian finkatzen den agiria eduki edo bertan zehazten diren betebeharrak bete beharko dituzte Haur Hezkuntzako Udal Eskoletako hezitzaileak.

Para los niños y las niñas ya escolarizados en las Escuelas Infantiles en el curso anterior, el proceso de reincorporación al centro podrá estar sometido a parámetros diferenciados a los de los niños y las niñas que se incorporan por primera vez.

ARTICULO 25º:

La escolarización de los niños y las niñas en las Escuelas Municipales de Educación Infantil comenzará y finalizará a las edades establecidas por la ley, con carácter general, para este ciclo.

TÍTULO CUARTO: De la Relación Familia-Escuela en La Red de Escuelas Municipales de Educación Infantil.

ARTICULO 26º:

La relación entre la familia y la escuela se articulará a través de fórmulas de comunicación, participación y formación. La comunicación será continua y tendrá un componente informal y otro sistemático y estructurado. La participación será promovida, igualmente, tanto a través de vías informales como formales, tales como el Consejo Escolar de Centro y el Consejo Escolar de Red. La formación será impulsada por medio de las Escuelas de Padres y Madres.

ARTICULO 27º:

La organización escolar facilitará y fomentará la comunicación informal y diaria con las familias en los momentos de entradas y salidas, dirigidas a conocer tanto las circunstancias diarias que afecten a los niños y a las niñas, como aspectos de cuidados y atenciones físicas; aspectos emocionales y afectivos derivados de su adaptación y tránsito al medio escolar y situaciones familiares que afecten a la actitud del niño y la niña en el centro.

ARTICULO 28º:

En sentido sistemático y estructurado, la comunicación formal entre la familia y la Escuela Infantil se desarrollará mediante entrevistas individuales y reuniones de sala.

ARTICULO 29º:

Cada escuela recogerá en los documentos preceptivos sobre el funcionamiento del centro los mecanismos para aunar y dar sentido a la comunicación con las familias en los términos de los artículos 27 y 28.

ARTICULO 30º:

Las Escuelas Municipales de Educación Infantil crearán mecanismos de participación y conocimiento de la actividad de la escuela para las familias. Se incluyen en este apartado la delimitación y estructura del período de adaptación; las presentaciones visuales en reuniones generales de escuela y/o sala; la participación en actividades lúdico-festivas ligadas a la incorporación curricular de la cultura popular; las actividades de Puertas Abiertas para las familias u otras formas de visualización-participación propias de cada escuela.

Cada escuela incorporará a través de los documentos preceptivos, acordes con la línea educativa de la escuela, los cauces de información y participación de las familias.

ARTICULO 31º:

La función de colaboración y orientación a las familias se organizará, coordinará y desarrollará, además, a través de actividades formativas de carácter participativo- charlas y seminarios entre otros, que con carácter genérico se denominarán "Guraso Eskolak/Escuelas de Padres y Madres". De igual modo, tanto el Equipo Técnico del Servicio de Escuelas Infantiles como los de las propias escuelas elaborarán y difundirán documentación adecuada sobre cuestiones educativas que atañen al entorno familiar y a la relación familia-escuela.

TÍTULO QUINTO: Del Personal de Las Escuelas Municipales de Educación Infantil.

ARTICULO 32º:

Conforman el personal de las Escuelas Municipales de Educación Infantil el personal docente y el personal de servicios. El personal docente estará integrado por funcionarios/as municipales adscritos por el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz al Servicio de Escuelas Infantiles del Departamento Municipal de Educación. El personal de servicios estará integrado por el personal de cocina y el de limpieza cuya adscripción departamental será la que figure en la Relación de Puestos de Trabajo.

CAPÍTULO I: DEL PERSONAL EDUCADOR DE LAS ESCUELAS MUNICIPALES DE EDUCACIÓN INFANTIL Y SU ORGANIZACIÓN

SECCIÓN 1ª: REQUISITOS DE TITULACIÓN.

ARTICULO 33º:

El personal educador de las Escuelas Municipales de Educación Infantil, deberá estar en posesión del título o los requisitos que se establezcan en la legislación vigente.

2. ATALA: ZEREGINAK.

34. ARTIKULUA:

Hauek dira Haur Hezkuntzako Udal Eskoletako hezitzaileen oinarrizko zereginak:

1. Haur eskolaren antolakuntzarekin zerikusia duten zereginak:

a) Haur eskolaren antolakuntzan eta funtzionamenduan modu aktiboan parte hartzea.

b) Ikastegiko curriculum-proiektuaren proposamena taxutu eta onestea, eskolako zuzendariarekin eta gainerako hezitzaileekin batera.

c) Ikastegiko urteko planaren eta oroit-idazkiaren proposamenak taxutztea.

d) Hiru hilean behin ikastegiaren martxa aztertu eta baloratzea, baita urteko plana zenbateraino bete den ere, gainerako hezitzaileekin batera.

e) Beren jarduerak adin bertsuko haur taldeetan diharduten beste hezitzaileekin koordinatzea.

f) Eskolako zuzendariak deitutako bilkuretara joan eta horietan parte hartzea.

g) Haur Hezkuntzako Udal Eskoletako Hezkuntza-Proiektua gauzatzea errazten duten jarduera eta egoera guztietan laguntzea.

h) Haurrak egongo diren espazio fisikoa antolatzea, ingurune egoki, eroso eta atsegina izan dezaten.

i) Haurrak inoiz bakarrik ez daudela eta beti ere nagusiren batekin daudela bermatzea.

2. Curriculum garatzearekin eta estrategia pedagogiko-didaktikoekin zerikusia duten zereginak:

a) Zeinek bere haur taldearentzako programazioa –helburuak, edukiak eta jarduerak– planifikatu, garatu eta ebaluatzea, berarekin bikoitza osatzen duen hezitzailearekin nahiz gainerakoekin koordinatuta.

b) Haurren bilakaera integralean laguntzea, esan nahi baitu modu planifikatu eta globalizatuan esku hartzea alderdi afektiboari, sozialari, harremanei nahiz alderdi kognitiboari dagozkienetan, besteak beste honako hauek bultzatuz: norberaren gorputza ezagutztea; beste haurrekiko harremanak, adierazpen eta komunikazio modu desberdinen bitartez; haurrek gertueneko ingurunea eta inguruko gauzak eta pertsonak atzematea, eta gero eta autonomia maila handiagoa lortzea ohiko zereginetan.

c) Haurraren bilakaera integralaren prozesuarekin –afektu premia, higieena, elikapena, atsedena, harreman sozialak eta inguruarekikoak–, haren bilakaera kognitiboarekin nahiz adierazmenarekin eta bilakaera-unearekin zerikusia duten egoera guztiei arreta eskaintzea.

d) Planifikatutako programaziorako beharrezko diren hezkuntza egoera eta materialak aukeratu, atondu eta prestatzea.

e) Instalazio eta materialak ongi erabiltzen direla zaintzea.

f) Beren ardurapeko taldean eskolaratuta dauden eta hezkuntza premia bereziak dituzten haurrentzako banakako curriculum-egoitzapenak taxutztea.

3. Haurren familiekin zerikusia duten zereginak:

a) Beren ardurapeko haurren familiei informazioa ematea, ikastegiaren antolakuntza eta funtzionamenduaren gainean, oro har, eta haur taldearen gainean, bereziki.

b) Haur Eskolen Zerbitzutik nahiz beste udal instantziaren bategitik bidalitako informazio guztia familiei helaraztea, eta behar diren bide eta bitartekoak eskaintzea horiei zerbitzuari buruzko administrazio-gestioen komunikazioa eta ebazpena modu arin eta eraginkorren gauza daitezten, baita kexak eta iradokizunak aurkezteko ere.

c) Gurasoei zuzendutako prestakuntza-planak sustatzea.

d) Familiekin etengabeko harremanak izatea, haurrek ikasturtean zehar duten bilakaeraren berri emateko.

4. Udaleko Hezkuntza Sailarekin berarekin zerikusia duten zereginak:

a) Udaleko Hezkuntza Sailak eskatutako informazioa ematea, beren ardurapeko haurren eskolaratze prozesuaren inguruan.

SECCIÓN 2ª: LAS FUNCIONES.

ARTICULO 34º:

Las funciones básicas del personal educador de las Escuelas Municipales de Educación infantil son las siguientes:

1. Funciones relacionadas con la organización de la escuela infantil.

a) Participar activamente en la organización y funcionamiento de la Escuela Infantil.

b) Elaborar y aprobar la propuesta del Proyecto Curricular de Centro junto con la dirección de la escuela y el resto de los miembros del equipo educativo.

c) Elaborar las propuestas de Plan Anual y Memoria del Centro.

d) Analizar y valorar trimestralmente, junto con el resto del equipo educativo, la marcha general del Centro y el nivel de cumplimiento del Plan Anual.

e) Coordinar sus acciones con las del personal educador que interviene con niños y niñas de grupos similares de edad.

f) Asistir y participar en cuantas reuniones se convoquen por parte del Director/a de la escuela.

g) Colaborar en cuantas acciones o situaciones favorezcan la consecución del Proyecto Educativo de las Escuelas Municipales de Educación Infantil.

h) Organizar el espacio físico donde van a estar los niños y las niñas con el fin de proporcionar un entorno adecuado, acogedor y agradable.

i) Garantizar que los niños y niñas nunca estén solos/as y que siempre estén acompañados por un adulto.

2. Funciones relacionadas con el desarrollo curricular y las estrategias pedagógico-didácticas.

a) Planificar, desarrollar y evaluar la programación para su grupo de niños y niñas respecto a objetivos, contenidos y actividades, coordinándose con la pareja educativa y el resto de personal educador.

b) Favorecer el desarrollo integral de los niños y las niñas, lo que supone una intervención planificada y globalizada de los aspectos afectivo, social, relacional y cognitivo, favoreciendo, entre otros, el conocimiento del propio cuerpo; la relación con otros niños y niñas, a través de diferentes formas de expresión y comunicación; la observación del entorno más cercano y la captación de los objetos y personas que rodean al niño y niña; y la adquisición progresiva de un mayor nivel de autonomía en las actividades habituales.

c) Atender todas las situaciones que estén relacionadas con el proceso de desarrollo integral del niño y la niña-afectivas, higiénicas, alimenticias, de descanso, de relaciones sociales y con el entorno-, con su desarrollo cognitivo y expresivo y con el momento evolutivo en que se encuentre.

d) Seleccionar, disponer y preparar las situaciones y materiales educativos que necesite la programación planificada.

e) Velar por el buen uso de las instalaciones y materiales.

f) Elaborar las Adaptaciones Curriculares Individualizadas correspondientes a los niños y niñas de necesidades educativas especiales escolarizados en el grupo de niños y niñas a su cargo.

3. Funciones relacionadas con las familias de los niños y niñas.

a) Informar a las familias de los niños y las niñas bajo su responsabilidad sobre la organización y funcionamiento del centro, en general, y del grupo de niños en particular.

b) Transmitir a las familias cuanta información les sea remitida desde el Servicio de Escuelas Infantiles u otras instancias municipales, así como facilitarles los canales y medios para que la comunicación y la resolución de las gestiones administrativas relativas al servicio se realicen de manera rápida y eficaz, así como la presentación de quejas y sugerencias.

c) Promocionar planes de formación dirigidos a los padres y las madres.

d) Mantener una relación permanente con las familias del niño sobre la evolución del mismo a lo largo de todo el curso.

4. Funciones relacionadas con el propio Departamento Municipal de Educación.

a) Proporcionar la información solicitada por el Departamento Municipal de Educación, relativas al proceso de escolarización de los niños y las niñas bajo su responsabilidad.

b) Behar diren jardueretan parte hartzea, Udaleko Hezkuntza Sailak hala eskatuz gero, beren lanpostuei dagozkien zereginak betetze aldera, hala nola bileretan eta mintegietan, haurrekin egiten diren lan-saiotara joatea, ikastetxera baimendutako bisitaldia egiten dutenei harrera egitea eta abar.

c) Eskatzen duen informazio eta dokumentazio oro ematea Udaleko Hezkuntza Saileko Administrazio Zerbitzuari, Vitoria-Gasteizko Udalaren zerbitzura dauden langileak diren aldetik egin beharreko administrazio-gestioak egiterik izan dezan.

5. Beste erakunde batzuekin zerikusia duten zereginak:

a) Behar diren harremanak ezartzea beste erakunde batzuekin, ikastegiaren helburuak behar bezala betetze aldera.

35. ARTIKULUA:

Aurreko ataletan adierazitako zereginak betetzerakoan, arreta bereziz zaindu beharko dituzte hezitzaileek Vitoria-Gasteizko Udalean eta Haur Eskolen Zerbitzuan bertan euskararen erabilera normalizatzera bideratutako jarraibide, programa eta jarduerak, zerbitzu hori atal elebiduna izaki, udal antolakuntzaren baitan.

3. ATALA: HAUR HEZKUNTZAKO UDAL ESKOLETAKO HEZITZAILEEN LAN ESPARRUA.

36. ARTIKULUA:

Aldian-aldian hitzartzen diren udal langileen enplegu baldintzek arautuko dituzte bai Haur Hezkuntzako Udal Eskoletako langileen lan egutegia, bai horien eta Vitoria-Gasteizko Udalaren arteko lan harremanekin zerikusia duten gainerako zirkunstantziak.

37. ARTIKULUA:

Haur Hezkuntzako Haur Eskoletan lan egiten duten hezitzaile guztiek lan baldintza berak izango dituzte, baita baldintza funtzional berak ere. Hauxe izango da hezitzaile lanpostuen sailkapena: B/C titulazio-taldekoak, administrazio berezikoak, azpi-eskala teknikokoak.

Haur Hezkuntzako Haur Eskoletako zuzendari lanpostuetan diharduten langileek berriazko baldintzak izango dituzte, bai kategoria profesionalari dagokionean, bai ordainsariei, dedikazioari eta ordu banaketari dagokienean.

38. ARTIKULUA:

Haur Hezkuntzako Udal Eskolen Sarearen helburuekin eta pedagogi, metodologi eta antolakuntza printzipioekin bat etorri beharko dute hezitzaileen lanaldia eta ordu-banaketak. Oro har, dedikazio denbora hauek finkatuko dira: zuzenean haurrekin aritu beharrekoa, koordinazio eta antolakuntza lanetarako nahiz familiekin egoteko asetan izango dena, eta hainbat zereginetarako –antolakuntza, programazioa, jarraipena eta ebaluazioa, lekuak eta materialak prestatzea eta familiekin komunikazioa– egunean izango dena. Halaber, hezitzaileen prestakuntzarako eta eguneratze profesionalerako denbora-tarteak ere finkatuko dira lan egutegiaren barruan.

39. ARTIKULUA:

Alkaterari edo ordezkari izendatzen duen organoari dagokio hezitzaileen lanaldia eta horren ordu-banaketaren onestea, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 124. eta 127.1.h) artikuluen ildotik.

4. ATALA: HAUR HEZKUNTZAKO UDAL ESKOLETAKO ZUZENDARITZA.

40. ARTIKULUA:

Haur Hezkuntzako Udal Eskola bakoitzak ikastegiko zuzendari kargua beteko duen pertsona bat izango du, eskolako zuzendariari dagozkien zereginak egingo dituena. Hauxe izango da zuzendari lanpostuen sailkapena: B titulazio-taldekoak, administrazio berezikoak, azpi-eskala teknikokoak.

41. ARTIKULUA:

Hauexek dira haur eskolako zuzendariari dagozkion zereginak:

- Haur eskolaren ordezkari ofiziala izatea.
- Eskolaren funtzionamendua zuzendu eta koordinatzea.
- Ikastegiko gobernu-organoen bilkuretara dei egitea eta horien buru izatea.
- Hezitzaile taldearekin batera ikastegiko curriculum-proiektuak proposamenak taxutzea.

b) Participar en aquellas actividades para las que sea requerido por el Departamento Municipal de Educación en relación al cumplimiento de las funciones propias del puesto, tales como reuniones, seminarios, asistencia a sesiones de trabajo de los niños y las niñas, atención a visitas autorizadas al centro etc.

c) Facilitar al Servicio Administrativo del Departamento Municipal de Educación cuanta información y/o documentación sea requerida por éste, para llevar a cabo las gestiones administrativas relativas a su condición de personal al servicio del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.

5. Funciones relacionadas con otras instituciones.

a) Establecer las relaciones necesarias con otras instituciones para el adecuado cumplimiento de los fines del centro.

ARTICULO 35º:

El desarrollo de todas las funciones señaladas en los apartados anteriores observarán especialmente las directrices, los programas y las acciones dirigidas la normalización del uso del euskera tanto en el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, como en el propio Servicio de Escuelas Infantiles, que constituye una unidad bilingüe dentro de la organización municipal.

SECCIÓN 3ª: EL MARCO LABORAL DEL PERSONAL EDUCADOR DE LAS ESCUELAS MUNICIPALES DE EDUCACIÓN INFANTIL.

ARTICULO 36 º:

Tanto el calendario laboral, así como las demás circunstancias que tienen que ver con las relaciones laborales entre los/as trabajadores/as de las Escuelas Municipales de Educación Infantil y el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, serán las reguladas por las condiciones de empleo del personal al servicio del Ayuntamiento que se pacten.

ARTICULO 37º:

Todo el personal educador que desarrolle su trabajo en las Escuelas Municipales de Educación Infantil estará sujeto a las mismas condiciones laborales y funcionales. Las plazas de educador/a de escuela infantil estarán enclavadas en el grupo de titulación B/C, administración especial, subescala técnica.

El personal que ocupe la dirección en las Escuelas Municipales de Educación Infantil estará sujeto a condiciones específicas, tanto en lo que se refiere a su categoría profesional, como a las retribuciones y la dedicación y distribución horaria.

ARTICULO 38º:

La jornada laboral y la distribución horaria del personal educador habrá de ser acorde a los fines de la Red de Escuelas Municipales de Educación Infantil y a sus principios pedagógicos, metodológicos y organizativos. Con carácter general, se contemplarán tiempos de dedicación directa a la atención a los niños y las niñas; tiempos semanales para actividades de coordinación, organización y atención a las familias; y tiempos diarios para actividades de organización, programación, seguimiento y evaluación, preparación de espacios y materiales y comunicación con las familias. Asimismo, se establecerán dentro del horario laboral tiempos dedicados a la formación y la actualización profesional del personal educador.

ARTICULO 39º:

Corresponde al Alcalde o al Órgano en quien delegue la aprobación de la jornada laboral del personal educador y la distribución horaria de la misma, con arreglo al artículo 124 y 127.1.h) de la LRBR.

SECCIÓN 4ª: LA DIRECCIÓN EN LAS ESCUELAS MUNICIPALES DE EDUCACIÓN INFANTIL.

ARTICULO 40º:

Cada Escuela Municipal de Educación Infantil contará con una persona que ocupará el cargo de Director/a del centro y que desempeñará las funciones propias de la dirección de la escuela. Las plazas de director/a de escuela infantil estarán enclavadas en el grupo de titulación B, administración especial, subescala técnica.

ARTICULO 41º:

Las funciones que corresponden al Director/a de la Escuela Infantil son las siguientes:

- Ostentar la representación oficial de la Escuela Infantil.
- Dirigir y coordinar el funcionamiento de la Escuela.
- Convocar y presidir las reuniones de los Organos de Gobierno del Centro.
- Elaborar conjuntamente con el equipo educativo las propuestas del Proyecto Curricular del Centro.

e) Ikastegiko urteko plana eta oroit-idazkia taxutzea hezitzaile taldearekin batera, Haur Eskolen Zerbitzuak eta Eskola Kontseiluak finkatutako jarraibide eta irizpideak aintzat harturik, eta aplika daitezela zaintzea.

f) Proiektu eta programak gauzatzeko erraztasunak eman eta ikastegiko jarduerari eragiten dioten arau eta erabakiak betearaztea.

g) Dena delako eskolari atxikitako langileen buru izatea.

h) Gastuak baimentzea, ikastegiaren aurrekontuen arabera, baita ordainketak ere.

i) Ikastegiko agiriak eta dosierak zaintzea.

j) Ikastegiko ziurtagiri eta agiri ofizialak ontzat ematea.

k) Udaleko Hezkuntza Sailari eskolaren administrazio-kudeaketa laguntzea.

l) Orduetegi eta zerbitzu jakinetan bere ardurapean geratzen diren haurrak zaintzea, baita finkatzen diren uneetan hezitzaileei laguntzeko lanak egitea ere.

m) Eskolako haurren guraso, tutore nahiz legezko ordezkariak kasu egin eta informazioa ematea.

n) Sareko Eskola Kontseiluan izango dituen ordezkariak aukeratzea.

ñ) Udaleko Hezkuntza Sailak beraren gain uzten dituen gainerako eskumenak.

42. ARTIKULUA:

Haur Hezkuntzako Udal Eskolen Sarearen helburuekin eta pedagogi, metodologi eta antolakuntza printzipioekin bat etorri behar du haur eskolako zuzendariaren lanaldia eta ordu-banaketak. Oro har, dedikazio denbora hauek finkatuko dira: zuzenean hurrekin aritu beharrekoa, koordinazio eta antolakuntza lanetarako nahiz familiekin egoteko astean izango dena, eta ikastegiko zuzendaritza lanei dagozkien zereginetarako egunean izango dena. Halaber, zuzendarien prestakuntzarako eta eguneratze profesionalerako denbora-tarteak ere finkatuko dira lan egutegiaren barruan.

43. ARTIKULUA:

Alkaterari edo ordezeko izendatzen duen organoari dagokio haur eskolako zuzendariaren lanaldia eta horren ordu-banaketa onestea, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 124. eta 127.1.h) artikuluen ildotik.

5. ATALA: HAUR HEZKUNTZAKO UDAL ESKOLETAKO HEZITZAILAEN PLANTILLA-HORNIDURA.

44. ARTIKULUA:

Ikastegi guztiei aplikagarri zaizkien irizpide orokorrak eta ikastegi bakoitzaren zirkunstantzia berezien ondorio diren berariazko irizpideak aintzat harturik finkatuko da Haur Hezkuntzako udal eskola bakoitzako plantilla-hornidura.

Haur Eskolen Zerbitzuko talde teknikoari dagokio proposamen orokorrak eta berariazko egokitzapenak egitea, urteko planifikazio txostenaren bitartez, baita eskola bakoitzean behar den plantillaren aurreikuspena ere.

Funtzio Publikoaren Sailak udal sail guztietarako finkatutako irizpide orokorrak aintzat hartzen direlarik beteko dira hezitzaile lanpostuak.

45. ARTIKULUA:

Ikasturte bakoitzerako plantilla-hornidurari dagokionez, hauek dira Haur Hezkuntzako udal eskola guztiei aplikagarri izango zaizkien irizpide orokorrak:

a) Honela zehaztuko da zenbat hezitzaile behar diren ikastegiko heziketa lana egiteko: haur talde bakoitzean, horretarako finkatutako goizeko orduetegiaren behintzat, bi hezitzailek aritu behar du batega. Ikastegiko gainerako orduetarako, haurrak zaintzeko eta zerbitzuak betetzeko beharrezko diren langileak izendatuko dira, araudi honetako 17. eta 22. artikuluetan adierazitako parametroei jarraiki.

b) Hezkuntza premia bereziak dituzten haurrek tratamendu berezia eskatzen dute, banan-banako arreta eskaini behar du baita men-turaz; lan hori egiteko hezitzaileak jarri ahal izango dira halakoetan.

46. ARTIKULUA:

Haurrei arreta egokia eskaintzearen printzipioa aintzat harturik atxi-ki eta antolatu behar dira plantillako langileak, haurrek erreferentzia

e) Elaborar conjuntamente con el equipo educativo el Plan y la Memoria Anuales del Centro, de conformidad con las directrices y criterios establecidos por el Servicio de Escuelas Infantiles y el Consejo Escolar y velar por su aplicación.

f) Facilitar la ejecución de proyectos y programas y hacer cumplir las normas y los acuerdos de actuación que afecten a la actividad del Centro.

g) Ejercer la jefatura del personal adscrito a la Escuela de la que es director/a.

h) Autorizar los gastos de acuerdo con el presupuesto del Centro y autorizar los pagos.

i) Custodiar los documentos y expedientes del Centro.

j) Visar las certificaciones y documentos oficiales del Centro.

k) Colaborar con el Departamento Municipal de Educación en la gestión administrativa de la Escuela.

l) Atender a los niños y niñas que pueda tener bajo su responsabilidad en determinados horarios y servicios, incluyendo los labores de apoyo al personal educador en los momentos que se establezcan.

m) Atender e informar a los padres y madres, tutores o representantes legales de los niños y niñas de la escuela.

n) Elegir a sus representantes en el Consejo Escolar de Red.

ñ) Las demás competencias que se deleguen por el Departamento Municipal de Educación.

ARTICULO 42º:

La jornada laboral y la distribución horaria del director/a de la escuela infantil habrá de ser acorde a los fines de la Red de Escuelas Municipales de Educación Infantil y a sus principios pedagógicos, metodológicos y organizativos. Con carácter general, se contemplarán tiempos de dedicación directa a la atención a los niños y las niñas; tiempos semanales para actividades de coordinación, organización y atención a las familias; y tiempos diarios para actividades propias de los labores de dirección del centro. Asimismo, se establecerán, dentro del horario laboral, tiempos dedicados a la formación y la actualización profesional del personal de dirección.

ARTICULO 43º:

Corresponde al Alcalde o al Órgano en quien delegue la aprobación de la jornada laboral del personal que ocupe la dirección de la escuela infantil y la distribución horaria de la misma, con arreglo al artículo 124 y 127.1.h) de la LRBRL.

SECCIÓN 5ª: LA DOTACIÓN DE PLANTILLA DE PERSONAL EDUCADOR EN LAS ESCUELAS MUNICIPALES DE EDUCACIÓN INFANTIL.

ARTICULO 44º:

La dotación de plantilla de cada escuela municipal de educación infantil se realizará considerando criterios generales aplicables a todos los centros y criterios específicos derivados de las circunstancias especiales de cada centro.

Corresponde al Equipo Técnico del Servicio de Escuelas Infantiles realizar las propuestas generales y las adaptaciones específicas, a través del informe anual de planificación y la previsión de la plantilla necesaria para cada escuela.

La provisión de los puestos de personal educador se realizará conforme a los criterios generales establecidos por el Departamento de Función Pública para todos los departamentos municipales.

ARTICULO 45º:

Los criterios generales de aplicación en todas las escuelas municipales de educación infantil para la dotación de la plantilla para cada curso escolar serán los siguientes:

a) El personal educador necesario para desarrollar la actividad educativa en el centro se diseñará en función de dos educadores/as interactuando en el mismo grupo de niños al menos en el período de mañana establecido al efecto. Para el resto del horario del centro se asignará el personal necesario para cubrir la atención a los niños y a los servicios según los parámetros recogidos en los artículos 17 y 22 del presente reglamento.

b) Se consideran situaciones de especial tratamiento los niños de necesidades educativas especiales, que pueden requerir una atención más individualizada y la asignación de personal educador para desarrollar la misma.

ARTICULO 46º:

La adscripción y organización de la plantilla debe atenderse al principio de una adecuada atención a los niños y a las niñas, de modo que

egonkorak izan ditzaten, bai eguneroko antolakuntzan, bai zikloko hezkuntza-prozesuan; orobat hartu beharko dira aintzak eskola bakoitzeko ikastegiko planean finkatutako helburu eta lehentasunak.

Hain zuzen ere, eskola bakoitzeko zuzendariari dagokio plantilako langileak atxiki eta antolatzea; Haur Eskolen Zerbitzuko talde teknikoak, berriz, aplikazio jarraibide orokorrak emango ditu, eta jarraipena egingo, nola gauzatu diren ikusteko.

Nolanahi ere, araudi honetako 44. eta 45. artikuluetan zehaztu diren antolakuntza printzipio eta irizpide orokorrak aplikatuz esleituko zaizkie hezitzaileei taldeak, zereginak eta ordutegi zahatzak.

47. ARTIKULUA:

Funtzio Publikoaren Sailak finkatutako irizpideei jarraiki beteko dira aldi batez hutsik geratzen diren hezitzaile lanpostuak.

48. ARTIKULUA:

Funtzio Publikoaren Sailak finkatutako irizpideei jarraiki jokatu da hezitzaileen sailen arteko nahiz sail barruko mugikortasunari dagokionetan.

Barne mugikortasunerako deialdiak egin ahal izango ditu Udaleko Hezkuntza Sailak, Haur Hezkuntzako Udal Eskoletako hezitzaileei zuzendurik, ikastegien antolakuntza hobetu eta giza baliabideen banaketa orekatze aldera, beharrezkotzat jotzen badu, horretarako aurreikusitako legediaren eta arauen ildotik egin ere.

II. kapitulua: Haur Hezkuntzako Udal Eskoletako Hezitzaileez beste langileak.

49. ARTIKULUA:

Haur Hezkuntzako Udal Eskoletako hezitzaileez beste langileek ikastegien funtzionamenduaren baitara bildu beharko dute; horrenbestez, esleitzen zaizkien zereginetarako behar duten informazioa, orientabidea eta prestakuntza emango zaie, baita ikastegiko gobernu organoetan beren parte hartzea bermatzeko beharrezko zaiena ere.

50. ARTIKULUA:

Haur Hezkuntzako Udal Eskolei esleitzen zaizkien hezitzaileez beste langile guztiei lanpostu zerrendan finkatzen diren hizkuntza eskakizunak ezarriko zaizkie.

51. ARTIKULUA:

Ikasturte bakoitzerako onetsitako eskola-egutegira moldatu beharko dira hezitzaileez beste langilean lanaldia eta ordu-banaketa.

52. ARTIKULUA:

Zeregin hauek izango dituzte Haur Hezkuntzako Udal Eskoletako sukaldeetako langileek:

a) Menuak egitea, eskumena duten udal sailek emandako jarraibideen ildotik -haurren beharretara eta adinetara egokitutako menuak izan beharko dute-. Menuetan edozein aldakuntza egitekotan, Udaleko Hezkuntza Sailaren baimena beharko da alde zuzenetik.

b) Eskolako jantokiak ongi funtziona dezan beharrezko diren erosketak egitea, enpresa hornitzaileentzako eskaerak prestatzea, eskaera horien kontrola eramatea eta Udaleko Hezkuntza Saileko Administrazio Zerbitzuari jantoki zerbitzuaren aurrekontua kudeatzeko behar duen informazioa ematea.

c) Janariak kontrolatu eta onik dauden zaintzea, eta haurren higieneari, osasunari nahiz segurtasunari eragin diezaiokkeen edozein gorabeheraren berri ikastegiko zuzendariari ematea.

d) Janariak eta sukaldeko produktuak ongi gordetzea, higieneari eta osasungarritasunaren alorreko arauak errespetatzea.

e) Higieneari eta osasungarritasunaren alorreko araudia betetzea beren lanean, hartu beharreko neurri pertsonalei dagokienean.

f) Sukaldeko eta jantokiko material guztiaren garbiketa egitea, eta ordena eta instalazioen nahiz materialen erabilera egokia zaintzea. Halaber, kontu handiz gorde eta zaindu beharko dituzte haurren segurtasuna arriskuan jar lezaketen materialak, haien eskura egokitu ez daitezkeen.

g) Haurrak egongo diren jantokiko eta sukaldeko espazio fisiko antolatzea, ingurune egoki, eroso eta atsegina eskaintzearen.

éstos tengan referencias estables tanto en la organización diaria como durante el proceso educativo del ciclo, así como a los objetivos y prioridades de cada escuela establecidos en el plan de centro.

En este sentido, la adscripción y organización de la plantilla corresponde a la dirección de cada escuela y el Equipo Técnico del Servicio de Escuelas Infantiles dará instrucciones generales de aplicación, al tiempo que realizará un seguimiento de la concreción de las mismas.

En todo caso, la adscripción de grupos, tareas, horarios concretos del personal educador serán el resultado de la aplicación de los principios y criterios organizativos generales especificados en los artículos 44 y 45 del presente Reglamento.

ARTICULO 47º:

La cobertura de vacantes temporales de personal educador estará sujeta a los criterios establecidos por el Departamento de Función Pública.

ARTICULO 48º:

La movilidad interdepartamental e intradepartamental del personal educador estará sujeta a los criterios establecidos por el Departamento de Función Pública.

El Departamento Municipal de Educación podrá convocar cursos de movilidad interna entre el personal educador de las escuelas municipales de educación infantil, que obedezcan a la intención de mejorar la organización de los centros y la distribución equilibrada de los recursos humanos, si así lo considera necesario, conforme a la legislación y normativa prevista al efecto.

Capítulo II: Del Personal No Docente de las Escuelas Municipales de Educación Infantil.

ARTICULO 49 º:

El personal no docente de las escuelas Municipales de Educación Infantil, se integrará en el funcionamiento de los centros, y recibirá la información, orientación y formación necesarias para desarrollar las funciones que tiene asignadas, así como para garantizar su participación en los órganos de gobierno del centro.

ARTICULO 50 º:

A todo el personal no docente asignado a las Escuelas Municipales de Educación Infantil, se les asignarán los perfiles lingüísticos que se establezcan en la Relación de Puestos de Trabajo.

ARTICULO 51 º:

La jornada laboral y la distribución horaria del personal no docente, habrá de adaptarse al calendario escolar aprobado para cada curso.

ARTICULO 52 º:

El personal de cocina de las Escuelas Municipales de Educación Infantil habrá de desarrollar las siguientes funciones:

a) Confeccionar los menús de acuerdo con las directrices dadas por los departamentos municipales competentes, adaptados a las necesidades y a las edades de los niños y las niñas. Cualquier modificación de los menús habrá de estar autorizada por el Departamento Municipal de Educación.

b) Efectuar las compras necesarias para el buen funcionamiento del comedor escolar, preparar los pedidos para las empresas suministradoras; llevar el control de dichos pedidos y facilitar la información necesaria al Servicio Administrativo del Departamento Municipal de Educación para la gestión del presupuesto del servicio de comedor.

c) Controlar y comprobar el estado de conservación de los productos alimenticios, comunicando a la dirección del centro cualquier incidencia que pudiera afectar a la higiene, salud y seguridad de los niños y las niñas.

d) Almacenar adecuadamente los productos de alimentación y cocina, respetando las normas higiénico-sanitarias correspondientes.

e) Observar la normativa higiénico-sanitaria referida a las medidas personales a adoptar en el desempeño de su trabajo.

f) Efectuar la limpieza de todo el material de cocina y comedor; y velar por el mantenimiento del orden y del buen uso de las instalaciones y los materiales. Si estos últimos pudieran suponer un riesgo para la seguridad de los niños y las niñas, habrán de almacenarse y custodiarse diligentemente, para que queden fuera del alcance de los menores.

g) Organizar el espacio físico de la cocina y del comedor donde van a estar los niños y las niñas, con el fin de proporcionar un entorno adecuado, acogedor y agradable.

h) Jantokia bera ere hezkuntzarako espaziotzat jotzearen ondorio diren ardurak beren gain hartzea, eskolako hezitzaile taldeak zehazten dituen irizpideei jarraiki.

i) Udaleko Hezkuntza Sailak beren gain utzitako zereginak oro, sukaldeko langileen kategoriari eta titulazioari dagozkielarik.

53. ARTIKULUA:

Udaleko nahiz udaletik langile guztiek, Haur Hezkuntzako Udal Eskoletan lan sistematiko nahiz uanean unekoren bat egiten dutelarik, ikastegiko araudia bete beharko dute, eta begirunea erakutsi beharko diete hezitzaileei nahiz haurrei, baita eskolan egiten diren jarduerikiko errespetua ere.

SEIGARREN TITULUA: Haur Hezkuntzako Udal Eskolen Sareko Gobernu eta Parte Hartze Organoak.

54. ARTIKULUA:

Sareko Eskola Kontseilu bat izango du Haur Hezkuntzako Udal Eskolen Sareak. Parte hartze organu kolegiatua izango da, eta honako hauek egongo dira bertan ordezkaturak: hezkuntzako estamentu guztiak, udal administrazioa –Udaleko Hezkuntza Sailaren bitartez– eta Vitoria-Gasteizko Udalean ordezkariak duten talde politikoak.

55. ARTIKULUA:

Kide hauek izango ditu Haur Eskolen Sareko Eskola Kontseiluak:

a) Alkatea edo hark ordezkari izendatzen duen zinegotzia, zein izango baita kontseiluburua.

b) Udaleko Hezkuntza Saileko zuzendaria

c) Udaleko Hezkuntza Saileko Administrazio Zerbitzuko burua, zein idazkari lanetan arituko baita.

d) Udaleko Hezkuntza Saileko Haur Eskolen Zerbitzuko burua.

e) Haur Hezkuntzako Udal Eskoletako hiru zuzendari.

f) Administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat, Udaleko Hezkuntza Sailak izendatua.

g) Seme-alabaren bat haur hezkuntzako udal eskolaren batean matriculatua duten sei aita edo ama.

h) Vitoria-Gasteizko Udalean ordezkariak duten talde politikoen bi ordezkari.

56. ARTIKULUA:

Urte bakoitzeko irailean eta urrian bideratuko da Sareko Eskola Kontseiluko kideak hautatzeko prozedura.

57. ARTIKULUA:

Eskola guztietako zuzendarien artean hautatuko dira haur hezkuntzako udal eskoletako zuzendaritzako langileen ordezkariak. Haur Hezkuntzako Udal Eskoletako zuzendari guztiak izango dira hautesle, baita hautagarri ere.

58. ARTIKULUA:

Ikastegietako Eskola Kontseiluetako gurasoek ordezkariak dituzte gurasoak Sareko Eskola Kontseiluan. Hiru urtean behin erabakiko da, zozketa bidez, zein sei eskolatako Eskola Kontseiluetako gurasoek ordezkariak dituzten familiak Sareko Eskola Kontseiluan.

59. ARTIKULUA:

Sareko Eskola Kontseiluko kideak hautatzeko prozedura bukatzen delarik, hura eratzeko bilkurrarako deialdia egingo du alkateak edo hark ordezkari izendatzen duen zinegotziak, ikasturte bakoitzeko lehen hiru hilabetean.

60. ARTIKULUA:

Sareko Eskola Kontseilurako ordezkariak hautatu behar dituen eskola-komunitateko sektoreen batek horiek hautatzen ez baditu –sektore horri berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik–, ez da horregatik baliorik gabe geratuko organo kolegiatu horren eraketa.

61. ARTIKULUA:

Hiru urtean behin berrituko dira Sareko Eskola Kontseilurako hautatutako kideak. Gurasoen ordezkariak, berriz, horien seme-alabek Haur Hezkuntzako haur eskoletakoren batean matriculatuta egoteari uzten dioten guztietan berrituko dira.

h) Asumir las responsabilidades derivadas de la consideración del comedor escolar como un espacio educativo más, según los criterios que definen el equipo educativo de la escuela.

i) Todas aquellas funciones asignadas por el Departamento Municipal de Educación, acordes con la categoría y titulación del personal de cocina.

ARTICULO 53 °:

Todo personal municipal o extramunicipal que realice algún trabajo sistemático o puntual en las Escuelas Municipales de Educación Infantil, deberá cumplir con la normativa del centro, manteniendo en todo momento actitudes de respeto hacia el personal docente, hacia los niños y las niñas y hacia las actividades que se desarrollan en la escuela.

TÍTULO SEXTO: De los Órganos de Gobierno y Participación de la Red de Escuelas Municipales de Educación Infantil.

ARTICULO 54°:

La Red de Escuelas Municipales de Educación Infantil contará con un Consejo Escolar de Red, que constituye el órgano colegiado de participación en el que están representados todos los estamentos educativos, la administración municipal, a través del Departamento Municipal de Educación y los grupos políticos con representación en el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.

ARTICULO 55°:

El Consejo Escolar de Red estará compuesto por los siguientes miembros:

a) El Alcalde o Concejala/a en quien delegue, que será su Presidente/a.

b) El/La Directora/a del Departamento Municipal de Educación.

c) La Jefatura del Servicio Administrativo del Departamento Municipal de Educación, que actuará como Secretario/a.

d) La Jefatura del Servicio de Escuelas Infantiles del Departamento Municipal de Educación.

e) Tres Directores/as de las Escuelas Municipales de Educación Infantil.

f) Un representante del personal de Administración y Servicios asignados al Departamento Municipal de Educación.

g) Seis padres y/o madres cuyos hijos y/o hijas estén matriculados en alguna de las escuelas municipales e educación infantil.

h) Dos representantes de los grupos políticos con representación en el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.

ARTICULO 56°:

El procedimiento de elección de los miembros del Consejo Escolar de Red se desarrollará durante los meses de septiembre y octubre de cada año.

ARTICULO 57°:

Los representantes del personal de dirección de las escuelas municipales de educación infantil serán elegidos de entre todos los/as directores/as de las escuelas. Serán electores y elegibles todos/as los/as directores/as de las Escuelas Municipales de Educación Infantil.

ARTICULO 58°:

La representación de los padres y/o las madres en el Consejo Escolar de Red corresponderá a los padres y/o madres procedentes de los Consejos Escolares de las escuelas. Cada tres años se determinarán, mediante sorteo, las seis escuelas cuyos Consejos Escolares ostentarán la representación de las familias en el Consejo Escolar de Red.

ARTICULO 59°:

Finalizado el procedimiento de elección de los miembros del Consejo Escolar de Red, el Alcalde o Concejala/a en quien delegue, convocará la sesión de constitución del mismo, durante el primer trimestre de cada curso escolar.

ARTICULO 60°:

Si alguno de los sectores de la Comunidad Escolar sujeto al procedimiento de elección, no eligiera a sus representantes en el Consejo Escolar de Red por causas imputables a dichos sectores, este hecho no invalidará la constitución de dicho órgano colegiado.

ARTICULO 61°:

Los miembros electos del Consejo Escolar de Red se renovarán cada tres años. Los representantes de los padres y las madres se renovarán siempre que sus hijos e hijas dejen de estar matriculados/as en alguna de las escuelas municipales de educación infantil.

62. ARTIKULUA:

Gutxienez ikasturtean bi aldiz bilduko da Sareko Eskola Kontseilua, baita lehendakariak deialdia egin edo kideen heren batek hala eskatzen duenean ere.

63. ARTIKULUA:

Eskumen hauek izango ditu Sareko Eskola Kontseiluak:

a) Haur Hezkuntzako Udal Eskoletan haurrak onartzeko prozedura onestea.

b) Ikasturte bakoitzerako onartzen den matrikulazio-araudiari buruzko proposamenak egitea horretarako eskumena duten organoei.

c) Egokitzat jotzen dituen proposamenak egitea, Haur Hezkuntzako Udal Eskolak direla eta.

Arauzkoa izango da Sareko Eskola Kontseiluari kontsulta egi-
ta gai hauei dagozkienetan:

a) 3 urtera arteko haurren zikloaren planifikazioa, oro har, eta, bereziki, Haur Hezkuntzako Udal Eskolen Sarearena.

b) Ikasturte bakoitzeko leku eskaintza eta matrikulazio-araudia.

64. ARTIKULUA:

Gobernu eta parte hartze organo hauek izango dira Haur Hezkuntzako Udal Eskoletako bakoitzean:

a) Pertsona bakarrekoak: zuzendaria.

b) Kide anitzekoak:

- Haur Eskolako Eskola Kontseilua.

- Hezitzaileen taldea.

65. ARTIKULUA:

Araudi honetako 40, 41, 42 eta 43. artikuluei jarraiki jokatuko du Haur Eskolako zuzendariak.

66. ARTIKULUA:

Ikastegiko ordezkapen organo gorena da Haur Eskolako Eskola Kontseilua, eta kide hauek izango ditu:

a) Eskolako zuzendaria, zein izango baita kontseiluburua.

b) Zinegotzia edo hark ordezkari izendatzen duen teknikaria.

c) Ikastegiak zenbat maila eskaintzen dituen –sehaskak, katu-kakoak, urte eta erdikoak, bi urtekoak–, horrenbeste hezitzaile, bakoitza maila bateko ordezkari gisa.

d) Eskolan zenbat gelak funtzionatzen duten, horrenbeste guraso.

e) Administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat.

67. ARTIKULUA:

Ikasturteko lehenengo bi hilabeteetan bideratuko da Ikastegiko Eskola Kontseiluko kideak hautatzeko prozedura.

68. ARTIKULUA:

Eskolako hezitzaile-taldeko kide guztien artetik hautatuko dira haur hezkuntzako udal eskoletako hezitzaileen ordezkariak, 66. artikuluan adierazitako banaketa errespetatzen delarik, nolnahi ere.

69. ARTIKULUA:

Gurasoei berei edo haurren legezko ordezkariari dagokie Ikastegiko Eskola Kontseiluan gurasoak ordezkatzeko. Gurasoei nahiz legezko tutorei dagokie hautatzeko nahiz hautatuak izateko eskubidea; nolnahi ere, 66. artikuluan adierazitako banaketa errespetatu behar da.

70. ARTIKULUA:

Gerora ordezkapenik egin beharrik izanez gero ere, hautagai guztien izenak –hezitzaileak nahiz gurasoak izan– eta bakoitzak lortutako botoak idatziz jasoko ditu zuzendariak.

71. ARTIKULUA:

Ikastegiko Eskola Kontseiluko kideak hautatzeko prozedura bukatzen delarik, hura eratzeko bilkurarako deialdia egingo du eskola-konseiluko zuzendariak.

72. ARTIKULUA:

Ikastegiko Eskola Kontseilurako ordezkariak hautatu behar dituen eskola-komunitateko sektoreren batek horiek hautatzen ez baditu –sektore horri berari egotz dakizkioken arrazoiengatik–, ez da horregatik baliorik gabe geratuko organo kolegiatu horren eraketa.

ARTICULO 62°:

El Consejo Escolar de Red se reunirá, como mínimo, dos veces por curso escolar y siempre que lo convoque el/la Presidente/a o lo solicite, al menos, un tercio de sus miembros.

ARTICULO 63°:

El Consejo Escolar de Red tendrá las atribuciones siguientes:

a) Aprobar el proceso de admisión de los niños y niñas en las Escuelas Municipales de Educación Infantil.

b) Realizar propuestas a los órganos competentes relativas a la normativa de matriculación que se apruebe para cada curso escolar.

c) Elevar cuantas propuestas considere oportunas relativas a las Escuelas Municipales de Educación Infantil.

El Consejo Escolar de Red será consultado preceptivamente en las siguientes materias:

a) la planificación del ciclo 0-3 en general, y de la Red de Escuelas Municipales de Educación Infantil, en particular.

b) La oferta de plazas y la normativa de matriculación de cada curso escolar.

ARTICULO 64°:

En cada una de las Escuelas Municipales de Educación Infantil existirán los siguientes órganos de gobierno y participación:

a) Unipersonales: el /la Director/a.

b) Colegiados :

- El Consejo Escolar de la Escuela Infantil.

- El equipo del personal educador.

ARTICULO 65°:

El/La Director/a de la Escuela Infantil se regirá por los artículos 40, 41, 42 y 43 del presente reglamento.

ARTICULO 66°:

El Consejo Escolar de la Escuela Infantil es el órgano máximo de representación del centro y estará compuesto por los siguientes miembros:

a) El/La Director/a de la escuela que será su presidente.

b) El/La Concejal/a o técnico en quien delegue.

c) Un número de educadores/as igual al número de niveles que oferta el centro, representando cada educador a un nivel diferente (cunas, gateo, año y medio y dos años).

d) Un número de padres y/o madres igual al número de salas en funcionamiento de la escuela.

e) Un representante del personal de administración y servicios.

ARTICULO 67°:

El procedimiento de elección de los miembros del Consejo Escolar del Centro se desarrollará durante los dos primeros meses del curso escolar.

ARTICULO 68:

Los representantes del personal educador de las escuelas municipales de educación infantil serán elegidos por todos los miembros del equipo de la escuela, si bien respetando distribución definida en el artículo 66.

ARTICULO 69°:

La representación de los padres y/o las madres en el Consejo Escolar del Centro corresponderá a éstos o a los representantes legales de los niños y las niñas. El derecho a elegir y a ser elegido corresponde al padre y a la madre, en su caso, a los tutores legales, si bien respetando la distribución definida en el artículo 66.

ARTICULO 70°:

En previsión de futuras sustituciones el/la Directora/a hará constar el nombre y votos obtenidos por todos los candidatos, sean éstos personal educador o padres y madres.

ARTICULO 71°:

Finalizado el procedimiento de elección de los miembros del Consejo Escolar del Centro, el/la Directora/a de la escuela, convocará la sesión de constitución del mismo.

ARTICULO 72°:

Si alguno de los sectores de la Comunidad Escolar sujeto al procedimiento de elección, no eligiera a sus representantes en el Consejo Escolar del Centro por causas imputables a dichos sectores, este hecho no invalidará la constitución de dicho órgano colegiado.

73. ARTIKULUA:

Hiru urtean behin berrituko dira Ikastegiko Eskola Kontseilurako hautatutako kideak. Gurasoen ordezkariak, berriz, horien seme-alabek haur eskolan matrikulatuta egoteari uzten dioten guztietan berrituko dira.

74. ARTIKULUA:

Gutxienez hiru hilean behin bilduko da Ikastegiko Eskola Kontseilua, baita zuzendariak deialdia egin edo kideen heren batek hala eskatzen duenean ere.

75. ARTIKULUA:

Eskumen hauek izango ditu Haur Eskolako Eskola Kontseiluek:

- a) Ikastegiko curriculum-proiektua taxutzeko jarraibide eta irizpideak ematea.
- b) Ikastegiko plana eta oroit-idazkia taxutzeko jarraibide eta irizpideak finkatzea urtero, eta bi agiri horiek onetsi eta aplikazioa ebaluatzea.
- c) Eskolako instalazioen eta tresneriaren berrikuntza sustatzea, eta onik dauden zaintzea.
- d) Ikastegiko jarduera orokorra ikuskatzea.
- e) Sareko Eskola Kontseiluari proposamenak egitea.

76. ARTIKULUA:

Haur Hezkuntzako Udal Eskola bakoitzeko hezitzaile guztiak osatuko dute hezitzaile taldea, eta horren ardura izango da heziketari dagozkion alderdi guztiak planifikatu, koordinatu eta behar diren erabakiak hartzea; astero egingo du bilera horretarako.

Hauek dira eskolako hezitzaile taldearen zereginak:

- a) Ikastegiko curriculum-proiektuaren proposamena taxutzea, eskolako zuzendariarekin batera.
- b) Ikastegiko urteko planaren eta oroit-idazkiaren proposamenak taxutzea, eskolako zuzendariarekin batera.
- c) Bere funtzionamendu arauak taxutzea.
- d) Pedagogi prestakuntza, esperimentazio edo ikerketaren alorreko ekimenak sustatzea, ikastegian bideratu daitezten.
- e) Eskolako Eskola Kontseiluan izango dituen ordezkariak aukeratzea.
- f) Hiru hilean behin ikastegiaren martxa aztertu eta baloratzea, baita urteko plana zenbateraino bete den ere.

ZAZPIGARREN TITULUA: Haur Hezkuntzako Udal Eskolen Erregimen Ekonomikoa.

77. ARTIKULUA:

Urtero jasoko dira, Udaleko Hezkuntza Sailaren gastu aurrekontuaren barruan, Haur Hezkuntzako Udal Eskolen funtzionamenduen ondorioz sortutako beharrak.

78. ARTIKULUA:

Hiru finantziazio-bide izango dituzte Haur Hezkuntzako Udal Eskolek: udalak sareari eusteko egiten duen ekarpena; Eusko Jaurlaritzak horretarako ematen dituen diru-laguntzak eta harekin sinatzen diren hitzarmenak, eta udal eskolen zerbitzuak erabili eta baliatu ahal izateko familiek ordaintzen dituzten prezio publikoak, zein urte onesten baitira.

79. ARTIKULUA:

Dena delako ekonomi ekitaldirako ordenantza fiskalean finkatzen dena izango da familien ekarpena, eta matrikula, asistentzia eta jantoki kontzeptuak hartuko ditu bere baitan. Beka sistema bat izango da, zerbitzu publikoaren prezioari aurre egiten laguntzeko; hain zuzen ere, zuzenean aplikatuko zaizkie bekak familien ekarpenei, zerbitzuaren finantziatorako kontribuzioa famili unitateen errenten arabera mailakatzen delarik.

ZORTZIGARREN TITULUA: Haur Hezkuntzako Udal Eskolen Koordinazioa, Erakunde barrukoa nahiz Erakundeen artekoa.

80. ARTIKULUA:

Jarduera protokoloak hitzartuko ditu Haur Hezkuntzako Udal Eskolen Sareak ikastegi horien zerbitzu eskaintzari zuzenean eragiten dioten ekintzak bideratzen dituzten udal sailekin.

81. ARTIKULUA:

Erakundeen arteko batzordeen sorrera bultzatuko du Udaleko Hezkuntza Sailak, hiru urtera arteko zikloa planifikatzeko eta adin-tarte horretako eskola-mapa zehazteko Vitoria-Gasteizko udalerrian.

ARTICULO 73º:

Los miembros electos del Consejo Escolar del Centro se renovarán cada tres años. Los representantes de los padres y las madres se renovarán siempre que sus hijos e hijas dejen de estar matriculados/as en la escuela infantil.

ARTICULO 74º:

El Consejo Escolar del Centro se reunirá, como mínimo, una vez al trimestre y siempre que lo convoque el/la Directora/a o lo solicite, al menos, un tercio de sus miembros.

ARTICULO 75º:

El Consejo Escolar de la Escuela Infantil tendrá las atribuciones siguientes:

- a) Establecer las directrices y criterios para la elaboración del Proyecto Curricular del Centro.
- b) Fijar anualmente las directrices y criterios para la elaboración del Plan y Memoria del Centro, aprobarlos y evaluar su aplicación.
- c) Promover la renovación de las instalaciones y del equipo escolar así como vigilar su conservación.
- d) Supervisar la actividad general del Centro.
- e) Elevar propuestas al Consejo Escolar de Red.

ARTICULO 76º:

El equipo de educadores/as estará integrado por la totalidad del personal educador de cada Escuela Municipal de Educación Infantil y tiene la responsabilidad de planificar, coordinar y decidir sobre los aspectos educativos de la misma, a través de las reuniones semanales para dicho fin.

Son funciones del equipo educativo de la escuela:

- a) Elaborar junto con el Director/a de la escuela las propuestas de Proyecto Curricular de Centro.
- b) Elaborar junto con el/la directora/a de la escuela la propuesta Anual de Plan y Memoria del Centro.
- c) Elaborar sus normas de funcionamiento.
- d) Promover iniciativas en el ámbito de la formación, la experimentación o la investigación pedagógica a desarrollar en el Centro.
- e) Elegir sus representantes en el Consejo Escolar de la Escuela.

f) Analizar y valorar trimestralmente la marcha general del Centro y el nivel de cumplimiento del Plan Anual.

TÍTULO SÉPTIMO: Del Régimen Económico de las Escuelas Municipales de Educación Infantil.

ARTICULO 77 º:

Anualmente, integrado en el presupuesto de gastos del Departamento Municipal de Educación se recogerán las necesidades derivadas del funcionamiento de las Escuelas Municipales de Educación Infantil.

ARTICULO 78º:

Las Escuelas Municipales de Educación Infantil contarán con tres vías de financiación: la aportación municipal al sostenimiento de la Red; los fondos provenientes de las subvenciones y los convenios que se establezcan con Gobierno Vasco para este fin; y la contribución de las familias mediante los precios públicos aprobados anualmente por el uso y disfrute de los servicios de las escuelas municipales.

ARTICULO 79º:

La aportación de las familias se establecerá en la Ordenanza Fiscal para el ejercicio económico correspondiente e incluirá los conceptos de matrícula, asistencia y comedor. El precio público del servicio se combinará con un sistema de becas, de aplicación directa a las aportaciones familiares basado en la progresividad de la contribución a la financiación del servicio, en función de las rentas de la unidad familiar.

TÍTULO OCTAVO: De la Coordinación Institucional e Interinstitucional de la Red de Escuelas Municipales de Educación Infantil.

ARTICULO 80º:

La Red de Escuelas Municipales de Educación Infantil establecerá protocolos de actuación con los departamentos municipales cuyas acciones afecten directamente a la prestación del servicio en las escuelas municipales de educación infantil.

ARTICULO 81º:

El Departamento Municipal de Educación promoverá la creación de comisiones interinstitucionales para la planificación del ciclo de cero a tres años y la definición del mapa escolar de este tramo de edad en el municipio de Vitoria-Gasteiz.

82. ARTIKULUA:

Udaleko Hezkuntza Saila koordinatu egingo da hiru urtera arteko haurrak eskolaratzearen ardura duten erakundeekin, jardueraprintzipio komunak finkatze aldera, hartara informazio eta arreta zerbitzu hobea eskaintzerik izan dadin familiei, baita matrikulazio prozesuen nahiz eskolan sartzeko baldintzen inguruko irizpide bateratuak zehazterik ere.

83. ARTIKULUA:

Hiru urtera arteko haurrekin nola edo hala diharduten instituzio, erakunde eta elkarteekiko koordinazioa bultzatuko du Udaleko Hezkuntza Sailak, hezkuntza-arreta integrala eskain dadin adin-tarte horretan.

BEDERATZIGARREN TITULUA: Haur Hezkuntzako Udal Eskolen Identitate Korporatiboa.

84. ARTIKULUA:

Vitoria-Gasteizko Udalak identitate korporatiboa dela-eta finkatzen dituen arauak bete beharko dituzte Haur Hezkuntzako Udal Eskolek barruko nahiz kanpoko komunikazio eta harremanetan.

85. ARTIKULUA:

Bereziki zainduko dute Haur Hezkuntzako Udal Eskolek herritarren aurrean ematen duten irudia. Sarearen, ikastegiaren eta bertan eskaintzen den zerbitzuaren irudia koherentea eta positiboa izan dadin, honako hauek hartuko dira kontuan: eskoletatik igorritako komunikazioak, herritarrenganako jokabidea, administrazio-zereginak egiteko modua eta kanpo aldera ematen den irudia, itxura pertsonalari dagokion alderdiak barne.

86. ARTIKULUA:

Behar diren agiriak landuko ditu Udaleko Hezkuntza Saileko Haur Eskolen Zerbitzuak Haur Hezkuntzako Udal Eskolen jarraibideak arautzeko ahozko nahiz idatzizko komunikazioari dagokionean, komunikazioak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan egiteari dagokionean, herritarrei zuzenean nahiz telefono bidez erantzuteari dagokionean eta abar, Udal Eskolen Sareak identitate bakarra erakus dezan, erabiltzen diren hizkuntza-elementu, ikono eta jokabideen bitartez.

87. ARTIKULUA:

Sareko ikastegi guztietan erabiliko diren papertegi-elementu komunak diseinatuko ditu Udaleko Hezkuntza Saileko Haur Eskolen Zerbitzuak. Halaber, arauzko agiri eta inprimakiak banatuko ditu ikastegiaren artean, bai ikaslearen dokumentaziorako direnak, bai ikastegiaren antolakuntza eta funtzionamenduari buruzko informazioa biltzeko direnak.

HAMARGARREN TITULUA: Haur Hezkuntzako Udal Eskoletan matrikulatutako haurrei eta horien familiei buruzko informazioa.

88. ARTIKULUA:

Datu pertsonalak babestearen alorrean indarrean dagoen estatuko nahiz autonomia erkidegoko legediaren mende egongo dira Haur Hezkuntzako Udal Eskoletan matrikulatutako haurrei eta horien familiei buruzko datu guztiak.

89. ARTIKULUA:

Ohorea, norberaren eta familiaren intimitatea nahiz norberaren irudia zaintzeko eskubidea babestearen alorrean indarrean dagoen legedia bete beharko dute Haur Hezkuntzako Udal Eskoletan egindako jarduera guztiek.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

LEHENEA

Honako hauek dira Udaleko Hezkuntza Sailari atxikitako ikastegiak:

- Haur Hezkuntzako ARANBIZKARRA Udal Eskola.
- Haur Hezkuntzako ARANA Udal Eskola.
- Haur Hezkuntzako ARIZNABARRA Udal Eskola.
- Haur Hezkuntzako PILAR Udal Eskola.
- Haur Hezkuntzako GLORIA FUERTES Udal Eskola.
- Haur Hezkuntzako GURUTZMENDI Udal Eskola.
- Haur Hezkuntzako HAURTZARO Udal Eskola.
- Haur Hezkuntzako F.X. LANDABURU Udal Eskola.
- Haur Hezkuntzako IZARRA Udal Eskola.
- Haur Hezkuntzako LAKUABIZKARRA Udal Eskola.

ARTICULO 82°:

El Departamento Municipal de Educación se coordinará con las instituciones responsables de la escolarización de los niños y niñas de cero a tres años en aras a establecer principios comunes de actuación que conlleven un mejor servicio de información y atención a las familias y a definir criterios convergentes en los procesos de matriculación y en las condiciones de acceso a las plazas escolares.

ARTICULO 83°:

El Departamento Municipal de Educación promoverá la coordinación con cuantas instituciones, organismos y asociaciones realicen actuaciones con los niños y niñas de cero a tres años, para procurar una atención educativa integral en este tramo de edad.

TÍTULO NOVENO: De la Identidad Corporativa de las Escuelas Municipales de Educación Infantil.

ARTICULO 84°:

Las Escuelas Municipales de Educación Infantil observarán en sus comunicaciones y relaciones, tanto internas como externas, las normas que sobre identidad corporativa establezca el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.

ARTICULO 85°:

Las Escuelas Municipales de Educación Infantil cuidarán de manera especial la imagen que proyectan hacia la ciudadanía. Para que la imagen de la Red, el Centro y el servicio que en él se presta, sea coherente y positiva, se considerarán las comunicaciones emitidas desde las escuelas, el comportamiento hacia los ciudadanos, la forma de llevar a cabo las tareas administrativas y la imagen que se proyecta hacia el exterior, incluyendo las relativas a los aspectos personales.

ARTICULO 86°:

El Servicio de Escuelas Infantiles del Departamento Municipal de Educación elaborará los documentos pertinentes que regulen las pautas de actuación de las Escuelas Municipales de Educación infantil, con respecto a la comunicación verbal y escrita, las comunicaciones en las dos lenguas oficiales de la CAPV; la atención directa y telefónica a la ciudadanía etc; de modo que los elementos lingüísticos, icónicos y conductuales de identidad transmitan una identidad única de la Red de Escuelas Municipales de Educación Infantil.

ARTICULO 87°:

El Servicio de Escuelas Infantiles del Departamento Municipal de Educación infantil diseñará los elementos de papelería comunes a todos los centros de la red. Asimismo, el servicio distribuirá entre los centros los documentos e impresos prescriptivos, referidos tanto a la documentación del Alumno/a, como a los de recogida de información sobre la organización y funcionamiento del centro.

TÍTULO DÉCIMO: De la Información acerca de las familias y los niños y las niñas matriculados en las Escuelas Municipales de Educación Infantil.

ARTICULO 88°:

Todos los datos acerca de las familias y los niños y las niñas matriculados en las escuelas municipales de educación infantil estarán sometidos a la legislación estatal y autonómica en materia de protección de datos de carácter personal.

ARTICULO 89°:

Todas las actuaciones realizadas en las Escuelas Municipales de Educación Infantil observarán el cumplimiento de la legislación en materia de Protección del Derecho al Honor, a la Intimidad Personal y Familiar y a la Propia Imagen.

DISPOSICIONES ADICIONALES

PRIMERA

Son Centros adscritos al Departamento Municipal de Educación los siguientes:

- Escuela Municipal de Educación Infantil ARANBIZKARRA.
- Escuela Municipal de Educación Infantil ARANA.
- Escuela Municipal de Educación Infantil ARIZNABARRA.
- Escuela Municipal de Educación Infantil EL PILAR.
- Escuela Municipal de Educación Infantil GLORIA FUERTES.
- Escuela Municipal de Educación Infantil GURUTZMENDI.
- Escuela Municipal de Educación Infantil HAURTZARO.
- Escuela Municipal de Educación Infantil F.J. LANDABURU.
- Escuela Municipal de Educación Infantil IZARRA.
- Escuela Municipal de Educación Infantil LAKUABIZKARRA.

- Haur Hezkuntzako LOURDES LEJARRETA Udal Eskola.
- Haur Hezkuntzako OLARIZU Udal Eskola.
- Haur Hezkuntzako SANSOMENDI Udal Eskola.
- Haur Hezkuntzako TXAGORRITXU Udal Eskola.
- Haur Hezkuntzako TXIMELETA Udal Eskola.
- Haur Hezkuntzako ANDRE MARIA ZURIA Udal Eskola.
- Haur Hezkuntzako ZARAMAGA Udal Eskola.

BIGARRENA

Ikastegiak batu, transferitu edo bertako jarduera bertan behera uztera bideratutako neurriak hartu ahal izango dira lehen xedapen gehigarrian zerrendatu diren udal sareko eskoletan, indarrean dagoen legedia aplikatzearen ondorioz, erakundeen arteko erabakien ondorioz, Haur Eskolen Zerbitzuak sarerako egiten dituen planifikazio-proposamenak onartzearen ondorioz nahiz sareko ikastegiren baterako nahikoa eskari ez izatearen ondorioz.

HIRUGARRENA

Bi urtera arteko haurrak eskolaratzeko ikastegi berriak sortuko ditu Vitoria-Gasteizko Udalak, Haurreskolak partzuergoarekin koordinaturik, adin horietarako leku eskaria eta eskaintza pixkanaka-pixkana berdintzerik izan dadin, bereziki hiriaren zabalgunen berrietan. Haurreskolak partzuergoari transferituko zaizkio ikastegi horiek, hark kudea ditzan.

XEDAPEN IRAGANKORRAK**LEHENA**

Lehen xedapen gehigarrian zerrendatu diren udal sareko eskoletan, hiru urtera arteko haurrentzako ziklo osoa emateko eskatzen diren betebeharrak egokitzeko modurik ez badute, Haur Eskolen Zerbitzuak -Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin eta Haurreskolak partzuergoarekin finkatzen diren planifikazio erabakiak beteaz- hala erabakitzen duen adinetarako lekuak eskainiko dituzte aldi batez, ikastegia kokatua dagoen inguruneke adinez adineko eskariak eta bertan eskaintzen diren eskola-leku publikoen kopurua aintzat harturik.

BIGARRENA

Urte horretako martxoaren 16ko ALHAOn argitaratutako 1994ko Antolakuntza eta Funtzionamendu Araudiaren arabera eraturako Haur Hezkuntzako Udal Eskoletako Eskola Kontseiluek ordeztuko dituzte araudi honetan finkatutako prozedurari jarriki eratzen diren Eskola Kontseiluak, ondorio guztietarako, 2005eko uztailaren 31ra arte.

HIRUGARRENA

Araudi honetako 37. eta 40. artikuluetan adierazi diren titulazio-betebeharrak betetzearen parekotzat jo ahal izango da hezkuntza administrazioak deitutako Haur Hezkuntzako espezializazio edo gaitze ikastaroak gainditzea, azaroaren 12ko 215/2004 Dekretuaren 10.2. artikulua iren ildotik.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indarrrik gabe geratuko da udalbatzak 1994ko otsailaren 18ko osoko bilkuran onetsitako Udal Haur Eskolen Zerbitzuaren Araudia.

AZKEN XEDAPENA

Araudi hau garatu eta betetzeko beharrezko diren xedapenak emateko baimena ematen zaio Tokiko Gobernu Batzarrari.

VITORIA-GASTEIZ

UDALBATZAREN IDAZKARITZA NAGUSIA

6.184

Iragarkia

Hasierako onespina ematea Vitoria-Gasteizko Udaleko adinekoentzako egoitzen, eguneko zentroen eta eguneko arretako zerbitzuen araudiari

Hauxe erabaki zuen Udalbatzak 2005eko uztailaren 29an egin-dako ohiko osoko bilkuran:

3.- Hasierako onespina ematea Vitoria-Gasteizko Udaleko adinekoentzako egoitzen, eguneko zentroen eta eguneko arretako zerbitzuen araudiari, onartutzat jotako zuzenketak eginda.

- Escuela Municipal de Educación Infantil LOURDES LEJARRETA.
- Escuela Municipal de Educación Infantil OLARIZU.
- Escuela Municipal de Educación Infantil SANSOMENDI.
- Escuela Municipal de Educación Infantil TXAGORRITXU.
- Escuela Municipal de Educación Infantil TXIMELETA.
- Escuela Municipal de Educación Infantil VIRGEN BLANCA.
- Escuela Municipal de Educación Infantil ZARAMAGA.

SEGUNDA

En las escuelas de la red municipal enumeradas en la disposición adicional primera, se podrán ejecutar medidas conducentes a la unificación, la transferencia o al cese de la actividad en las mismas, como consecuencia de la aplicación de la legislación vigente; de los acuerdos interinstitucionales; de la aceptación de las propuestas de planificación que el Servicio de Escuelas Infantiles realice para la Red o de la falta de demanda para alguno de los centros de la red.

TERCERA

El Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, en coordinación con el Consorcio Haurreskolak, creará nuevos centros para la escolarización de los niños y niñas de cero a dos años, de forma que pueda equilibrarse progresivamente la oferta y la demanda de plazas para estas edades, especialmente en las nuevas zonas de expansión de la ciudad. Estos centros serán transferidos al Consorcio Haurreskolak para su gestión.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS**PRIMERA**

Las escuelas de la red municipal enumeradas en la disposición adicional primera, que no estén en condiciones de adaptarse a los requisitos exigidos para la impartición del ciclo completo de cero a tres años, ofertarán transitoriamente plazas para las edades que el Servicio de Escuelas Infantiles determine en cumplimiento de los acuerdos de planificación que se puedan establecer con el Departamento de Educación del Gobierno Vasco y el Consorcio Haurreskolak, considerando la demanda por edades de la zona en la que se ubica el centro y el número de plazas públicas que se ofertan en la misma.

SEGUNDA

Los Consejos Escolares de las Escuelas Municipales de Educación Infantil constituidos según el Reglamento de Organización y Funcionamiento de 1994, publicado en el BOTHA el 16 de marzo de dicho año, suplirán, a todos los efectos, hasta el 31 de Julio de 2005, a los Consejos Escolares que se constituyan de conformidad con el procedimiento fijado en el presente Reglamento.

TERCERA

De conformidad con el artículo 10.2 del Decreto 215/2004, de 12 de noviembre, los requisitos de titulación a los que se refieren los artículos 37 y 40 del presente Reglamento podrán ser homologadas por la superación de los cursos de especialización o habilitación de educación Infantil convocados por la Administración Educativa.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogado el Reglamento del Servicio de Escuelas Infantiles Municipales aprobado en Sesión del Pleno Municipal del día 18 de febrero de 1994.

DISPOSICIÓN FINAL

Se autoriza a la Junta de Gobierno Local a dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo y la ejecución de este Reglamento.

VITORIA-GASTEIZ

SECRETARÍA GENERAL DEL PLENO

6.184

Anuncio

Aprobación Inicial del Reglamento de Residencias, Centros de Día y Servicios de Atención Diurna de personas mayores del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.

En sesión ordinaria del Pleno del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz de 29 de julio de 2005 se adoptó el siguiente acuerdo:

3.- Aprobar inicialmente el Reglamento de Residencias, Centros de Día y Servicios de Atención Diurna de personas mayores del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz con las modificaciones introducidas por las enmiendas estimadas.